

# Txabi Etxebarrieta

ETA EUSKAL 68AREN OIHARTZUNA





# **Txabi Etxebarrieta eta euskal 68aren oihartzuna**



**LEHENGO EDIZIOA**

**Donostia, 2018ko ekaina**

**Iratzar Fundazioa**

Zuatzu Enpresa parkea  
Zuhatsu kalea, Easo Eraikina, 4 behea.  
20018 Donostia (Euskal Herria)  
fundazioa@iratzar.net  
www.iratzar.eus

**Edizio honen testuak:** Andoni Olariaga eta Iñaki Egaña

**Itzulpenak:** José Morales

**Diseinua:** Unai Bergara Monasterio

**Maketazioa:** Aitziber Ruiz Alvarez

**Inprimaketa:** Gertu Inprimategia (Oñati)

**Lege Gordailua:** SS- 313-2018







# Ziklo historiko baten abiapuntua

## **EUSKAL MATXINADAREN SORRERA**

Arantzazuko (Oñati, Gipuzkoa) santutegiko basilikan Jorge Oteizak 14 apostoluen eskultura eraiki zuen. Eskulturaren gainean figura bat topa daiteke, Piedad izenaz ezaguna, amaren oinetan hilik dagoen semearen figura: Txabi Etxebarrietaren omenaldi bat da funtsean. Horrela utzi zuen Oteizak idatzia: “7 de Junio, sacrificado en Benta-Aundi, el primero de nuestra Resistencia última, cuando subo el 1 de noviembre ya he decidido que pondré en lo alto del Muro. El Hijo muerto, a los pies de la madre, que estará mirando, clamando al cielo, hablando, no sé...” (Xamardo, San Pedro, 2008) Oteizarentzat arteak egiak produzitzen ditu, eta egiek denbora historiko bat inauguratzen dute, alegia, periodizazio berri bat sortzen dute. Oteizak kristautasunaren gertaera fundatzailearen bitartez (kristoren bizitza, pasioa, sakrifizioa, heriotza eta berpizkundea), Euskal Herriaren politika berriaren fundatzaileetako bat den gertaera politikoa errepresentatzen du: ETAREN jaiotza, azken finean, Etxebarrietaren figuraren bitartez.

Hain zuzen, Etxebarrietaren biografia aztertzeaz gain, bere garaiko belau-naldiko kolektibo eta pertsonen ekarpen intelektualak eta humanoak aztertzen dira koaderno honetan, Etxebarrietaren figura azpimarratuz, baina ahaztu gabe ekarpen kolektiboez ari garela koadernoan zehar.

Etxebarrietak 23 urte baino ez zituen bizi izan, eta hala ere, gure historian berebiziko garrantzia duen pertsona da. Euskadi Ta Askatasuna erakundearen gazte zelarik izan zuen pisuaz gain, hainbat poema utzi zituen idatzita (batez ere maitasunari buruz), eta Sarrikon entsegu labur batzuk utzi zituen ere, existentzialismoaren aztarnak erakusten dutenak, besteak beste. Poesia idatzi eta irakurtzeaz gain, Bilboko kafeen tertulietan errenazimendu kulturalaren erdigunean hainbat eztabaida partekatu zituen Jorge Oteiza eta Blas de Oterorekin, esaterako. Ez gara luzatuko biografian, ordea, Iñaki Egañak emango ditu eta xehetasun gehiago bere atalean.

## 60. HAMARKADAKO TESTUINGURU SOZIOPOLITIKO ETA KULTURALA

68ko generazioa deiturikoak (50-60ko hamarkadakoak, oro har) markatuko du hurrengo hamarkadatan munduko ezker iraultzailea zizelkatuko duen iruditeria. Belaunaldi horrek Europa osoan Hiroshima, Auschwitz edo Gernikako gerra osteak utzitako hutsunea eta pesimismoa gaindituko dute. Gogoratu behar da, Euskal Herrian 1936tik 1956ra doan tartean hutsune handia egon zela orohar euskal kultural eta politikagintzan. 60ko hamarkadan hasiko da, batez ere, pizkunde kultural - politikoa. Aurretik, 50ko hamarkadan fenomeno garrantzitsuak gertatuko dira mundu mailan. Lehenik, Vietnameko gerra, ondoren, 1954tik 1962ra Alger-eko independentzia gerra emango da, kolonizazio frantsesaren kontra. Ondoren, Afrikako independentziak, Congo belgiarra, Magrebeko altxamendua. Hegoamerikan eta Kuban hamarkada gerrieroa deitu dena ere... Hortaz, hirugarren munduko liberazio mugimendu antikolonialen influentzia handia izango da Euskal Herrian, Tunez, Argel eta Kubarena, batez ere; eta Txileko kordoi industrialak, influentzia marxista-koak, Salvador Allenderen gobernupean daudenak ere.

Azken finean, ezker berri bat sortzen ari da Euskal Herrian, eta Benito del Valle, Txillardegi, Krutwig, Madariaga, Jose Antonio Etxebarrieta (Txabiren anaia), eta Txabi bera, besteak beste, Euskal Herriko errealtaterako modelo baten bila dabilta. Batetik, sobietar batasunak utzitako literatura guztia (Lenin, Stalin...) eta errealtatea dago, iraultza txinatarrak (Mao), Argeleko FLNren borroka anti-koloniala (Fanon), Ho Chi Minh vietnamdarra, Irlandan IRA, 1969an Italian Brigada Gorriak sortzen dira... Bestetik, hurrengo testuan Iñaki Egañak aipatzen dituen 68ko Maiatza frantsesa eta Pragako udaberriak berebiziko garrantzia dute ere. Tartean, horiez gain, erreferentzia intelektual ugari: Andre Gorz, Camus, Sartre, Che... Katolizismo espainiarrak zipriztindutako herri batean, haize freskoa da guzti hau.

Txabi Etxebarrieta mundu horretan jaiotzen da: ilusio berri baten mundua da. Ilusio berri hori kontziente da, ordea, borroka luzea izango dela, berak azpimarratzen duen bezala: "El que crea que podemos ganar en cinco años, ya puede irse a casa; nosotros estamos luchando a diez o veinte años vista." Optimismoa eta ilusioa, beraz, baina luzerako ikuspegi estrategikoarekin uztartuta. Itziar Aizpuruak, Burgosko prozesuan epaitua izango denak, udaberri kulturala deituko zion garai horri (Punto y Hora, 1988). Oro har, jendarte fenomeno zabal handia izan zen euskal 68ko matxinada, eta aktore politiko eta sozial ugari egon ziren inplikaturak. Horrez gain, 68ko maiatzeko uholdeak bizitza tradizionala eta patriarkala ere zalantzan jarri zituen maila batean, eta elementu horiek ere batu ziren euskal herriko proiektu kontrahegemonikora hasieratik.



Hamarkada horretako testuingurua, izan ere, frankismo bete betekoa da. 1964ean 25 años de paz ospatu zen, Diario Vasco eta El Correo Español frankistak bakeaz baino ez zuten hitz egiten, frankismo bete betan. Frankismoan ere, gaur bezala, inor ez zihoan kartzelara ideia politikoengatik, legea hausteagatik baizik. Azken finean, Euskal Herriari, testuinguru horretan, galdera edo behar bat planteatzen zaio: Euskal Herriak aske izan nahi baldin badu, bortxa beharrezkoa da, bai ala ez? Azurmendik Unamunoren pasarte bat ekartzen du gogora Oraingo gazte eroak liburuan, Paz en la Guerra liburutik hartua, karlismoaz ari zela: no tendría razón mientras no venciese. Mirandek aurretik egina zuen kritika, euskal herriak askatasuna nahi bazuen, kristautasuna eta bakezaletasuna albo batera utzi beharko zituela... Camusen obran, esaterako, etxean eta kalean eztabaidatu ezin ziren ideiak aurkitzen ziren: frankismoaren kritika, demokraziaren kritika, biolentziaren aldeko aldarria, izpiritu fresko eta kritikoa, funtsean.

### **GERTAKIZUNA: ETAREN V. ASANBLADA**

Hainbat asanblada ondoren, gertaera batek hurrengo hamarkadak markatu eta baldintzatuko ditu, hain zuzen, Euskadi Ta Askatasunaren V. Asanblada izango da gertaera hori. V. Asanblada ebaki puntu bat da, paradigma berri baten hasiera. Gerraosteko nazionalismoaren gertaera politiko nagusitzat jo daiteke asanblada hau, PNVren 1977ko kongresuak baino oihartzun historiko handiagoa izan duena. Asanblada horretan Txabiren papera zentrala izango da, bi partetan zatituko da eta biak berak gidatuko ditu. Lehena, 1966ean Gaztelun egina, Txabiren anaiak idatzitako informe bat irakurri zuen anaia gazteenak (el Informe Txatarra, Análisis y crítica del españolismo socialchovinista, gaur galdutzat ematen den dokumentua), zeinetan Ofizina Politikoaren posizio estatalistak, planteamendu nazionalistetatik urrunduz, kritikatzin ziren. Alegia, Espainiako langile klaseko frentean sartu ordez, euskal herriko klaseko frente propioa eratzearen alde mintzatzin zen. Asanbladaren bigarren zatian, 1967ko martxoan egina, Txabik erakundearen definizio ideologikoaren zizelkatzean hartuko du parte era zuzenean. Erakundearen asanblada garrantzitsuena izango zen bigarren bilera honetan, nazionalismo iraultzaile bat formulatuko da, euskal nazio askapenerako mugimenduaren fundazioa izango dena.

Asanblada horren ondoren, urte berean langile mugimenduarekiko erlazioekin arduratuko zen Etxebarrieta, eta urte berean klandestinitatera pasa-

ko da. Gipuzkoako burua izatera pasako da geroago, Itziar Aizpurua, Jokin Gorostidi, Mario Onaindia, Sarasketa Irasuegi eta abarrekin batera. Eta urte berean, Sarasketarekin kotxean doala Guardia Zibilarekin izandako tiroketa batean hilko dute. Bere heriotzak gogor astinduko du Euskal Herria.

### **INDEPENDENTZIA ETA SOZIALISMOA, TXANPON BERAREN BI ALDEAK**

V. asanblada horretan egituraturako dira gaur egunera arte gure borroka zizelkatu duen mundu ikuskera. Iraultza nolabait formula magikoa izango da, iraultzaren helburua euskal herriaren askatasuna izango da, subjektua euskal herriko langileak, eta tresna edo lanabesa sozialismo marxista izango da. Euskal Herriaren borroka, independentziaren aldeko borrokaren bidez, langile eta ikasleek gidatuta, kapitalismoaren kontrako borroka unibertsalean bilakatzen da.

Hori horrela, borroka ziklo bat hasiko da Euskal Herrian. V. Asanbladaren ondotik Euskal Nazio Askapenerako Mugimenduaren ardatz ideologiko eta sintesi nagusietako bat independentzia eta sozialismoa izango da. Hamarkada horren bukaera aldera, Etxebarrietak eta ETAk parez pare aurkituko duten arazoa, nazio arazoa eta arazo sozialaren banaketa nola uztartu izango da. Errepaso arin bat eginez, XIX. eta XX. mendeko garaiko marxisten literaturan nazionalismoa patriotismotik (abertzaletasuna) separatua agertzen da, eta hori dela medio, nazionalismoa arbuiatu ohi izan dute, burgesiaren ideologiatzat joz: nazionalismoa burgesiak bere klase interesak defendatzeko asmakuntza dela azpimarratuz. Dena den, Marxek eta Engelsek, nazio arazoa klase borrokari lotu izan dute. Horrela irakurtzen diogu Friedrich Engelsi:

*Todo campesino y trabajador polaco, que de la apatía despierta a la participación en asuntos de interés común, en primer lugar tropieza con el hecho de la opresión nacional. En todas partes choca siempre con ella como primer obstáculo en su camino. Eliminarla es la condición básica previa para todo desarrollo sano y libre. (Azurmendi, 1979: 67)*

Euskal Herrian, marxismo estatalak nazionalismoa errefusatuko du, burgesizat joz, borroka nazionala langile borrokaren osagarri dela planteatu gabe. Horrela, XIX. mendea bukatzeaz dagoela espainiar sozialismoa gorpuztuko

da. 1894an sozialismo espainolak sortutako “La lucha de clases” aldizkarian sozialismo espainiarrek Indalecio Prieto buru zuela, euskararekiko eta euskal herriarekiko erakusten duen mespretxua agerian jartzen dira aldizkari berean. “Hablar de una patria chica y querer conservar una lengua regional cuando todo tiende a universalizarse es una de las mayores locuras.”

Hasieratik bertatik literatura sozialista europarrarak nazioen arazoaz idatzitakoen ezikusia egin zuten Unamunok, Prietok eta abarrek: Otto Bauer, Renner, sozialista txekiarrek, 1910ean Copenagheko Internazionalaren kongresuan eztabaidatutakoak, Lenin eta Stalinek idatzitakoak, langilegoak borroka nazionalak zentzu iraultzailean laguntzearen alde agertzen ziren. Trantsizio post-frankista heldu baino urte batzuk lehenago, PSOEK autodeterminazio eskubidearen defentsa teorikoa egingo du, 1974ko Suresneseko Kongresuan, posizio guztiz pasiboa, urte batzuk ondoren ideariotik erauzia. Arrazoi horregatik kritikatzten zuen Dolores Ibarrurik alderdi sozialistak nazio arazoa ez zuela ulertu. Etxebarrietak posizio horiek horrela kritikatu zituen: “Son muchos quienes piensan que el ser nacionalista es reaccionario; que no se puede ser, a un mismo tiempo, nacionalista e internacionalista. Muchas veces no nos damos cuenta que hay dos tipos de nacionalismo: el de los poderosos y el de los oprimidos. Salta a la vista que el nuestro está con los segundos.” (Valencia: 2011. 37)

PSOE sortzen eta indartzen ari zen urte haietan, XX. mendean euskal nazionalismoak gorputz politikoa hartu zuen. Sabino Aranarekin sortuko den nazionalismoak, Partido Nacionalista Vasco izenarekin beranduago sortuko dena 1895ean, sozialismo honekiko arbuioa erakutsiko du, kanpotarra delako lehenik, eta espainola, bigarren. Izan ere, sozialismo horrek euskal arazoaren inguruan egingo duen mespretxua handia izango baita. Garai honetan, hortaz, sozialismo internazionalista eta euskal nazionalismoa agertuko dira herri berean eta momentu berean, eta talka handia izango dute. Sozialismoa garaiko euskal sentimendu nagusienaren, katolizismoaren, kontrakoa agertzen da. Horrela zioen Sabino Aranak: “Del socialismo, ¿qué vamos a hablar? Predicado por tres o cuatro maketos, hijos de un país que no ha conocido jamás ni libertad, ni igualdad, ni fraternidad, ni equilibrio económico, y siendo en sí considerado un sistema radicalmente opuesto a nuestras antiguas y sabias leyes, no ha encontrado eco en Bizkaia... (Bizkaitarra, 27 de Abril de 1894)”. Anti-sozialismo hori fede kristauak ere motibatua da, hortaz.

Urte batzuk itxaron beharko dira, ANVrekin, 1930ean, lehen aldiz euskal nazionalismoaren historia osoan, abertzaletasun laiko sozialista bat defen-

datzen ikusteko. ANVren aurrekaria kontuan hartuz, Euskadi Ta Askatasuna izango da, 6o. Hamarkadan, herrien subiranotasuna eta sozialismoa uztartuko dituen lehena, sozialista eta komunista espainiarren itsutasun espainolista, eta PNVren gatazka sozialarekiko jarrera liberalak gaudituz. Horrela, klase borroka nazio askapena bihurtuko da Euskal Herrian, edo bestela esanda, borroka nazionala klase borrokaren espresioa izango da.

### **PUEBLO TRABAJADOR VASCO, HERRITARTASUN SUBJEKTUA**

Borroka nazionala eta soziala (edo antikoloniala, garai hartan) sintetizatu zituen ETAk 6oko hamarkada bukaeran. Esaterako, 1967ko ZUTIKen 44. zenbakian idatzitako *El socialismo vasco y el frente nacional* artikuluan, Goiri ez izenarekin sinatutako artikuluan, Etxebarrietak Euskal Herriko arazoa bi aldean (nazionala eta soziala) uztarketa gisa planteatzen zuen (Lorenzo Espinosa, 1994: 248). Uztarketa horren borrokan, ezinbestekoa da Etxebarrietaren ustez “el trabajo común de la burguesía y el proletariado vasco para construir juntos la casa y, después de hecha la casa enfrentarse ambos en el problema social (Lorenzo Espinosa, 1994: 108). Frente nazional hau, “sólo puede estar encaminado a la total liberación nacional, sin excluir pasos intermedios tácticos: concierto económico, autonomía, estatuto, federación, etc.” (Lorenzo Espinosa, 1994: 108). Ondoren Argalak gehiago teorizatuko zuen puntu hau, Jokin Apalategiren *Los vascos, de la nación al estado* (1979) liburuko prologoan.

ETA sintesi horretara heldu bazen ere, aurretik II. asanbladan Vasconia liburuko tesietatik urrundu eta borroka nazionalaren eta klase arteko borrokaren alde bikotasunaz jabetzen da, Maok 1938 agerio japoniarren aurrean egindako teorizaziora gurera ekarriz. IV. Asanbladan 1965an jada arazo nazional eta sozialaren binomioaren eztabaidak zentraltasuna hartuko du. 1967an, V. Asanbladaren bigarren zatian jada uztarketa hori gauzatzen da, Etxebarrietaren gidaritzepean.

Sintesi horri loturik ulertu daiteke herritartasun subjektuaren formulazioa, *Pueblo Trabajador Vasco* edo *Euskal Herri Langilea*. Finean, Euskal Herria egikaritzeko, kolektibo nazionalari itsatsia emateko formulaziotzat har daiteke. Formulazio horrek nolabait garaiko bi fenomenori erantzun nahi zien: nazionalismo tradizionalaren iruditeria etnizista gauditzea, eta migrazio uholdeari herritartasuna aitortuz borroka nazionalaren eta so-

zialaren subjektutzat hartzea euskal herrian bizi zen langileria, jatorriak jatorri. Euskal Herri Langilearen formulazioaren jatorria, 1965ean idazten da Carta abierta de ETA a los intelectuales vascos ZUTIKen zenbaki berezi batean topa daiteke.

*Nosotros hemos estado y estaremos siempre con los trabajadores nacidos o no en Euskadi, trabajan por la implantacion de una verdadera democracia en nuestro pais. Ellos son la base de nuestra futura sociedad vasca. A ellos y a sus hijos, consideramos, desde luego, bastante mas vascos que a esos capitalistas de largos apellidos euskaldunes, que se atreven a llamarse patriotas mientras no cesan de enriquecerse a costa de su propio pueblo* **(Lorenzo Espinosa, 1994: 58).**

Alegia, nazioaren adierazlearen berresanahitze bat egiten du hemen funtsean ETAk: gu langileak, xumeak, herritarrak, gu gara herria. Hortaz, formulazio horrek nazionalismo tradizionalak baino herritartasun demokratikoago bat proposatzen zuen. V. asanbladako definizioak, euskalduntasunaren oinarri diferentzial objektiboak (kultura eta hizkuntza) azpimarratzen zituen, euskal herritartasunean oligarkikoak ez ziren euskal klase guztiak sartuz, burgesia nazionalarekin dudak agertuz. Egitasmo askatzailearen buru euskal proletalgora izango zen, eta euskal burgesia, aliatua. 1966an, espreski, ETAREN ofizina politikoak edo ETA BERRIK (Felipeak) egingo du ondorengo urteetan eta gaur arte indar hartuko duen definizioaren zehaztapena, Euskal Langile herria bizi eta lan egiten duen herritarrarekin berdinduz. Aurrerago, V. asanbladaren bigarren zatian, 1967an jada, EHLren definizioak, oligarkiak zapal dutako klase herrikoiak definitzen zituen. Definizio anitz eta nahas-mahas guzti horretan nahastuta agertzen dira, behin eta berriz, herritartasunaren kontzeptioa, naziotasunaren oinarri objektiboak (kultura eta hizkuntza) eta estrategiaren subjektua (euskal proletalgora buru). Esan daiteke, herritartasun subjektua, erradikala eta demokratikoa, izan dela urteen poderioz ezker abertzalean nagusitu den EHLren adiera.

1968az geroztik, emantzipazio sozial eta nazionalaren subjektutzat hartzen da Euskal Herri Langilea, nazionalismo tradizionalaren iruditeria etnizista gaindituz. Zeliken ustez, ez zen oso formulazio koherentea izan, herritartasunaren kontzeptio gisa ulertuz gero: euskaldun industrialak PTVren parte izateari uzten zion eta Burgos edo Saharako inmigrantea PTVren parte izatera pasatzen zen automatikoki Euskal Herrira etortzeaz edo lan egitearekin batera.

*Fue efectivamente este truco teórico –que difícilmente pasaría un examen científico– el que permitió a la izquierda abertzale establecer un vínculo sólido entre luchas sociales y de clase y el desarrollo de un proyecto político en el que la defensa de la identidad cultural se mantuviera abierta para todos y todas. (Zelik, 2017: 34)*

Lehenik, formulazio hori Zelikek aurkeztu baino aberatsagoa eta ez hain zurruna dela gogorarazi behar da. Bigarrenik, azpimarratu behar da ETAk izugarritzko abilezia estrategikoa erakutsi zuela formulazio hau testuinguru horretan eginez; asmakizun estrategiko erabakiorra izan baitzen mugimendu historiko baten zutabea bilakatuz, jarduera iraunkor bat sostengatuko zuen irakurketa partekatua, alegia. Izan ere, formulazio horrek klase borrokaren eta borroka nazionalaren arteko uztarketa eta lotura emateaz gain, herritar guztiei herritartasuna aitortzen zien, konponente demokratikoa beste edozein konponenteren aurretik hobetsiz: eskubide guztiak herritar guztientzat, herritarrak diren heinean.

### **AKZIO-ERREPRESIO ESTRATEGIA**

Hipotesi estrategikoarekin eta herritartasunaren subjektuarekin batera, hainbeste urteko borrokak baldintzatuko dituen akzio errepresio estrategiaren zehaztapenak egin ziren urte horietan. Hirurak batera ulertu behar dira, sinplifikazio baldar bat eginez: Estatua mugiarazi behar da eta mahai batean eserarazi, horretarako lehenik abertzaleen batasuna lortu behar dugu estatuarekin mahai horretan herri bezala aurkezteko, eta gero negoziatu beharko dugu autodeterminazio eskubidea biltzen duen autonomi estatutu bat, ahal bada banatutako puskak batzea lehenetsiz, alegia, lau herrialdetarako estatutu bat lortzen saiatuko gara. Estrategia jakin bat proposatzen zen, azken finean: akzio-errepresio dinamika bat, horrekin estatuaren deslegitimazio progresiboa, mobilizazio permanentea, kontzientzia hartzea, eta abar. Horri buruz ere utzi zuen Txabi Etxebarrietak zerbait idatzia. Horrela zioen 1968ko Aberri Egunerako ETAk argitaratuko duen testu batean, berak idatzia:

*ETA ha desarrollado una serie de actividades en sus diferentes frentes de lucha ejerciendo la acción de la Organización y contra esa acción se ha alzado tal como esperabamos, la represión por parte del opresor. Esta represión, al verse incapaz de desarticular globalmente*

*a la Organización se ha dirigido contra el pueblo, y ha encarcelado, interrogado y maltratado a personas totalmente ajenas a la Organización por simples sospechas de “ser de la ETA”. Dicho en otras palabras que toda la represión, en vez de desarticularnos, nos ha abierto más puertas en el pueblo, porque éste se da cuenta de quién es el opresor y quién lucha por sus derechos (...) A nuestra acción el opresor ha contestado con una represión, y a dicha represión estamos contestando con nuevas acciones, esto es un proceso revolucionario en la práctica, en la realidad, que aumenta progresivamente la conciencia y la combatividad del pueblo. (Lorenzo Espinosa, 1994: 267)*

Etorriko ziren urteetarako sintetizazio eta ideia berriak sortzeaz gain, estrategia zehatza proposatzen zuen ETAk garai hartan.

### **JEAN-PAUL SARTRE ETA BURGOSKO PROZESUA**

Urte bi beranduago, 1970eko abenduaren 3an Espainiako militarrek osatutako epaimahai batek hamasei euskal militante epaitzeari ekin zion; horietako bederatziren aurka heriotza zigorra ezarri zuen gero. ETAk 60. hamarkada luzean bere borroka hasia zuen, arrakasta handirik gabe, eta bere lehenengo ekintza armatuak ere eginak zituen. Burgosko prozesua izango zen, besteak beste, borroka hori hauspotuko zuen gertaeretako bat. Burgosko prozesuan, besteak beste, 1968an José Pardines guardia zibila (ETAren ekintza armatuaren ondorioz lehen hildakoa) hiltzea, urte berean Meliton Manzanos Gizarte Ikerketarako Brigadako (polizia politikoa) buru eta torturazaila hiltzea, eta beste delitu batzuk egozten zizkieten.

Prozesu honen harira, urte bat beranduago, 1971ean, Gisèle Hallimik El proceso de Burgos liburua kaleratuko du. Liburu horretan bertan, Sartrek hitzurre ahaztezin bat idatzia utziko dio Euskal Herriari. Pentsalari existentzialista eta idazle frantsesak, euskal afera eta bertako hiru agente politiko aztertuko ditu: PNV, PC eta ETA. Sartreren ustez, “PCk Euskal Herria izen geografiko soiltzat du. Madrilen jasotzen ditu aginduak, PCEk emanak, eta ez ditu tokian tokiko errealitateak kontuan hartzen, hartara zentralista izaten jarraitzen du —uler dezagun, sozialki progresista eta politikoki kontserbadorea—: saiatzen baita euskal langileak klase borroka «kimikoki aratzera» erakartzen.” PNV, aldiz, “oker dabil independentzia hartuz helburu bere baitakotzat. Aurrena, dio, eraiki dezagun euskal Errepublikak bat;

ondoren ikusiko dugu gure gizartea zuzentzea komeni ote den. Baina baldin burges moldeko euskal Estatu bat sortzea erdietsiko balu, ia ezinezkoa dena, egia da gain-esplotazio espainola amaituko litzatekeela, baina luze gabe eroriko litzateke Estatu hori kapitalismo amerikanoaren botapera.”

Sartreteren ondorioa izango da, “Bi erantzun horien eskasak (PC-EAJ) ederki erakusten du Euskal Herriari dagokionez independentzia eta sozialismoa domina beraren alde biak direla. Halatan, independentziaren aldeko borroka eta sozialismoaren aldeko borroka bat egin beharko lukete.” Sintetizazio horri Sartrek aitortzen zion balioa handia zen, ikus daitekeenez.

Sartreekin jarraituz, bere ustez, “hasieran, are jarrera teoriko bat hartu baino lehen, ETAk kontuan hartuko du herria joera bik zatitzen dutela: errebindikazio nazionalistak eta langileen erreboltak; 60az geroztik ulertuko du, eguneroko praktikan, borroka biak elkartu behar direla, batak bestea argitu eta erakunde berek batera gidatu.” Orduan, Sartreteren iritziz beti ere, ETAk eskuin humanista eta ezker unibertsalista utziko ditu albo batera, azken horrek askapen nazionala ahaztu duela aldarrikatuz. Sartrerentzat, ETAREN sozialismoa berria izango da: deszentralizatua eta konkretua. Izan ere, unibertsalitate konkretua defendatuko du zapaltzaileen zentralismo abstraktuaren aurka. ETAK erakusten duena da, hortaz, Sartreteren ustez, ondorio internazionalista garbi batekin, “gizaki guztiek, orobat zentralizatzaileek, unibertsaltasun abstraktuaren aurka beren berezitasunak baiesteko duten beharra erakusten digu: euskaldunen ahotsak entzutea, bretoienak, okzitaniarrenak, eta beren alboan borroka egitea, beren berezitasun zehatza baiets ahal dezaten, horrek dakar, ondorio zuzenaz, geuk frantsesok ere Frantziaren benetako independentziaren alde borroka egitea, Frantzia baita bere zentralismoaren lehen biktima.”

### **BELAUNALDI BERRIAK, METAFORA BERRIAK**

Belaunaldi bakoitzak bere borroka eta metaforak behar ditu, aurrekoak berrituz eta berriak sortuz, Etxebarrietaren garaikideek bere garaian egin zuen bezala. Hipotesi estrategikoa da gaurkotu beharreko lehen zutabea. Etxebarrietak jakin izan zuen bere garaiko eztabaida nagusiak irakurri eta garaiko sintetizazio egokiena burutzen. Bere garaia eta gaurkoa, ordea, desberdinak dira. Txanpon beraren bi aldean formulazioak, banatzen ziren bi karril uztartzen zituen bezala, gaur egun, borroka desberdinen aldarrikape- nek txanpona poliedro bihurtzea eskatzen dute, sozialismoa eta indepen-



dentzia barnebilduko lituzkeen, eta elkar baldintzatuko liratekeen beste elementu batzuk gehituz (lurrealdea, zaintza, gorputza, elikadura, energia...) formulazio berrira. Garai hartan artikulatu zen gisan, poliedroak borrokan artikulazioa planteatzen du, borroka desberdinek komunean dutena artikulatzea proposatuz.

Bestetik, Euskal Herri Langilearen formulazioak hainbat korapilo erantzun nahi zituen. Gaur egun euskal errepublika baterako bidean ditugun erronkei begira, herritartasunaren printzipio bezala eskubide guztiak herritar guztientzat leloa izan daiteke hautu iraultzaileena, a priori eraikitako subjektu esentzialista edo baztertzailak albo batera utziz.

60ko hamarkadan bezala gaur egun, teorizismo eta atomizazio handiko garaia suma daiteke. Ezin dugu ahaztu, neoliberalismoaren eta frankismoaren aurkako uholde horretan, teorietatik praxira pasatzeko hautua egin zuten kolektibo eta pertsonak erabakiorrak izan zirela. Horrez gain, belaunaldi hark jakin izan zuten momentuko keinu iraultzailea ez zela aurreko esperientziak errepikatzea, baizik eta hipotesi berriak eraiki eta horiek praktikara eramaten saiatzea. Azken horretan jarri zuen Etxebarrietak bere alea.

Txabi Etxebarrietaren belaunaldiak bere garaiko gakoak eta beharren irakurketa egiten jakin izan zuen. Garai horrek bere subjektu kolektiboa osatu zuen, bere kontakizunak eta bere eraikuntza teorikoak. XXI. mendean, gaurko belaunaldiek metafora eta erreferentzia propioak sortu beharrean gara, egungo behar eta galderei begira, egungo erronkei erantzungo diena, iraganari omenaldi onena egiteko hautua horixe izango da.

Andoni Olariaga Azkarate

Filosofoa eta Iratzar fundazioko kidea



## Bibliografia

Azurmendi, Joxe (1979) “*Nazionalismo internazionalismo Euskadin*”. Hordago. Donostia

Beltza (1976) “*El nacionalismo vasco 1876-1936*”. Editorial Txertoa.

Casanova, Iker & Asensio, Paul (1999) “*Argala*”. Txalaparta. Tafalla.

Goikoetxea, Jule (2017) “*Demokraziaren pribatizazioa. Kapitalismo Globala, Europa eta Euskal Lurraldeak*”. Elkar. Donostia.

Halimi, Gisèle (1972) “*El proceso de Burgos*”. Prólogo de Jean-Paul Sartre.

Lorenzo Espinosa, Jose María (1994) “*Txabi Etxebarrieta. Armado de palabra y obra*”. Txalaparta. Tafalla.

Lorenzo Espinosa, Jose María (1996) “*Txabi Etxebarrieta. Poesía y otros escritos*”. Txalaparta.

Odriozola, Onintza & Zabalo, Julen (2017) “*Eredu aldaketa euskal nazionalismoan? Demokrazia kontzeptuaren garrantzia*”. Jakin. Número 219.

Jesús Valencia. “*La ternura de los pueblos. Euskal Herria Internacionalista*”. Txalaparta. 2011

Xamardo, Nicolás & Jurgi San Pedro. “*Oteiza, ANV y Txabi Etxebarrieta: el arte y la política*”. Gara. 2008-12-08.

Zelik, Raul (2017) “*La izquierda abertzale acertó*”. Txalaparta. Tafalla.

Ansa-Goicoechea, Elixabete (2013). “*Un 68 en el país vasco*”. Prosopopeya. Revista de crítica contemporánea. Número 8. Pp. 123-154.



# Txabi Etxebarrietaren legatu politikoa

*“Thes egin diogun eta saihestu dugun horretaz soilik lotsatu behar gara”*

Txabi Etxebarrieta

Egunotan, ETAk bere ziklo politiko eta armatua itxi berritan, 50 urte betetzen dira erakundeak 1960ko hamarkadan izan zuen militante karismatikoenetako bat joan zitzaigunetik. Hamarkada hori frankismoaren faserik gogorrenetako bat izan zen bere proiektu totalitario eta uniformatzailea ezartzeari dagokionez. Hain zuzen ere, ETA orduan jaio eta sendotu zen.

Txabi Etxebarrieta 1968ko ekainaren 7an hil zen, Tolosako Olarrain auzoan, Guardia Zibilaren kontrol batean tirokaturik. Zenbait ordu lehenago, beste kontrol bat gainditu zuen eta guardia zibil batek bizia galdu zuen bertan. Hala, hil zuen eta hil zuten ETako lehen militantea izan zen. Hilabete batzuk lehenago, agonia luze baten ondoren, ETako beste aitzindarietako bat hil zen, Jose Maria Quesada, hainbat urte lehenago Meliton Manzanaskomisarioaren eskuetan pairatu zituen tortura latzen ondorioz.

Txabi hil eta lau aste geroago, Manzanaskomisario hil zuen ETAk. Erakundeak berriaz egin zuen lehen hilketa izan zen. Urtebete geroago, ekintza hura diseinatu zuen zuzendaritza atxilotua izan zen eta Burgosko prozesu mitikoan epaitu zuten, 1970. urtearen amaieran. ETAk beti adierazi zuen Manzanaskomisario ez zutela hil Txabiren heriotza mendekatzeko asmoz eta operatiboa lehena-gotik zegoela abian.

Magma hartan, gerra ezagutu ez zuen gazte belaunaldi bat agertu zen, erbestetik porrota asumitzen zuen beste belaunaldi baten parean eta oraindik ere 1937ko garaipen militarra eguneroko identitate ikur gisa baliatzen zutenen aurrean. Aiderazpide behartua irudi dezakeen arren, zilegi da esatea Txabi Etxebarrieta erakundearen sartu zen bigarren militante belaunaldi horretakoa izan zela. Hamar urte lehenago, ikasle gazte batzuek hurrengo hamarkadetan Euskal Herriaren bilakaera markatuko zuen hitza sortu zuten: ETA, Euskadi eta Askatasuna. Txabiren belaunaldikoek haien lekukoa hartu zuten.

Txabi Etxebarrietaren itzala, haren legatua eta Euskal Herrian mugimendu politiko berri bat –ezker abertzalea– ernatu zen garaiko testuingurua pre-

sente egon dira gure herria askatzeko konpromisoa hartu duten belaunaldi guztiengan. Txabi, historian izan diren beste asko bezala, konpromiso kolektiboaren ikono nagusietako bat izan da.

Paradoxikoki, Txabiren itzalak ezker abertzalea argitu zuen, eta osagarri nabarmen bat izan zuen: Jose Antonio anaia. Bera ere erreferentzia izan zen ETAn. Txabi bezala, bera ere goizegi hil zen, 1973an, gaixotasun degeneratibo baten ondorioz. Biak ala biak –Txabi eta Jose Antonio– ezinbesteko piezak izan ziren ETAk bere etorkizuna markatuko zuen beste gertatera gogoangarri batean ondu zuen corpus teorikoan. ETAREN V. Biltzarraz ari gara, zeinean bi helburu alboraezin finkatu baitziren, txanpon beraren bi aldeak, garai hartako militanteek esaten zuten bezala: independentzia eta sozialismoa.

Horrez gain, marko teoriko horretan ETAk Euskal Nazio Askapenerako Mugimendu Sozialista gisa definitu zuen bere burua. Denborarekin, mugimendu hori ENAM siglarekin ezagutu da (Euskal Nazio Askapenerako Mugimendua), baina era zabalago batean. Herri Batasunak honela definitu zuen 1988an: “Era generiko eta global batean, Euskal Herri osoarentzat Nazio Burujabetza Osoa lortzea azken helburutzat daukaten Euskal Langile Herriko sektore zabalen adierazpidea(k) edo korronte sozial eta politikoa”.

Labur esanda, Txabi eta Jose Antonio Etxebarrietaren aurrekoek –ETA sortu zutenek– eta haien biderei jarraitu ziotenek gaur egun hamarkada askotako borrokaren eta konpromisoaren lekukoa hartu duen mugimendu bat gorpuztu zuten. Gaur egun ere, Euskal Herria askatzeko borrokan aitzindari izan zirenen bizitasuna, kemena eta askatasun grina dira beraien lekukoa hartu duen mugimendu horren akuilua.

## **BIOGRAFIA**

Txabi eta Jose Antonio militantzia kideak izan ziren. 1968an, Txabi hil zenean, Jose Antonio anaia haren bizitzari buruzko paragrafo batzuk idatzi zituen ETAREN *Zutik* aldizkarian, sinadurarik gabe: “Txabi ezagutu izana, baita azaletik besterik ezagutu ez dutenentzat ere, zorte handia izan da; berarekin kutun bezala aritu garenontzat, pribilegioa izan da, eta urteen joanak ezingo digu prigrilegio hori eraman. Gutako batzuo, denbora luzez ere, kostatu egingo zaigu beregan pentsatzen jartzea. Bere ausentziaren hutsuneak lotsarik gabeko

negarrerako besterik ez du tokia uzten. Hain zuzen ere –adin txikiko itxuraz gairi– Txabi lider bat zen eta, are gehiago, lider atsegina. Ez hala kalkulatu edota atsegina izan nahiagatik. Txabi atsegina zen, sakonean eta bete-betean gizatiarra zelako”.

Txabi Bilbon jaio zen, 1944ko urriaren 14an. Aitaren familia Ispaster eta Lekeitiokoa zen, eta amarena Arabako Aiara bailarakoa. Lau neba-arrebetan hirugarrena zen. Hautzaroan oso bronkitis gogorra izan zuen, eta gaitzaren ondorioek bizitza osoa baldintzatu zioten, aldizka sukarra eta asma atakeak izaten baitzituen. Eskolapioetan ikasi zuen eta 1962an Ekonomia Zientzien Fakultatean matrikulatu zen. Bost urte geroago, lizentziatu eta Informatikan espezializatu zen.

Iharra eta luzanga zen. Gaztaina koloreko ilea zuen, eta kobre koloreko begirada xarmagarria garai hartan modan zeuden oskolezko betaurrekoen atzean (ahal bezain laster aldatu zituen Txabik betaurreko haiek). Sudur zuzena zuen, aurpegiera irribarretsua –bere gaztetasunagatik ziur aski–, eta bizar gaizki eginarekin kontraste nabaria egiten zuten masail gorrixkak. “Nahiago dut urtero seme-alaba bat izan, egunero bizarra egitea baino”, esan ohi zuen goizero.

Diotenez, hil zen garaian Pablo Nerudaren poesia irakurtzen ari zen. Biziki miresten zuen Dostoievski, egoera inpossibleetan harrapatutako pertsonaia oinazetuak sortu zituen errusiar idazlea. Bere garaiko idazleei dagokienez, oso gogokoak zituen Andre Malrauxen *Giza izatea* eta Jean-Paul Sartreren *Existentialismoa humanismoa da* liburuak. Bi obra horiek eragin handia izan zuten berarengan. Fakultatean, Henrik Ibsenen *Herriaren etsaia* obraren antzezpena zuzendu zuen. 1983an idatzitako antzezlanak izan arren, Txabiren ustez garaia espilatu zen. Protagonistak salatzen zuen balnearioko ura –herriko diru iturri nagusia– kutsatuta zegoela eta osasungaitza zela. Herriko handikiak hori ezkututzen saiatu ziren, eta salatzailea bakarrik geratu zen bere salaketan.

Jose Antonio Etxebarrieta 1940ko apirilaren 3an jaio zen. Beraz, Txabi baino lau urte nagusiagoa zen. Hemezortzi urterekin atxilotu zuten lehen aldiz, Begoñan esku-paperak botatzegatik. EGIko kidea izateaz akusatuta, bi hilabete egin zituen Larrinagako kartzelan. Askatu zutenean, Parisera joan zen, non liskar gogor eta garratzak izan baitzituen EAJko zuzendaritzarekin. Horren ostean, ETARA gerturatu zen.

1963ko udan, gaixotasun larri batek jo zuen. Medikuek bizkarrezurreko mielitisa diagnostikatu zioten, orno-muinaren inflamazioak eragiten duen

gaitz arraro bat. Hiru urtez, guztiz paralizatuta egon zen eta denboraldi luzeak igaro zituen erietxe batean. Txabi sarritan joaten zen anaia bisitatze-  
ra, eta Jose Antoniok, gaixoaldia nolabait arintzearren, klasiko marxistak  
irakurtzen zituen, batez ere Lenin. 1966an, zailtasunez ibiltzen hasi zen,  
makuluek lagunduta. Garai hartan, *Txatarra Txostena* izeneko ponentzia  
prestatu zuen ETaren V. Biltzarrerako.

Horrez gain, erakundeko militante gisa, ETak kalera begira argitaratzen  
zuen *Zutik* aldizkaria idazteaz arduratu zen. Abokatu gisa, berriz, Xabier  
Izko defendatu zuen Burgosko Prozesuan, Meliton Manzanasen hilketaren  
egile materiala izatea leporatzen baitzioten. Defentsako beste abokatuek  
*Gazela* ezizena jarri zioten, ordu gutxiko epean Izkoren defentsa ezin hobe-  
to prestatzeko gai izan zelako. 48 orduetan, 80 alegazio orri idatzi zituen bere  
defendatuari eginiko akusazioen kontra.

Geroago, prozesuari buruz idatzi zuen liburu ospetsua prestatzen lagundu  
zion Giselle Halimiri. 1973ko martxoan, gaixotasuna larriagotu egin zi-  
tzaion bat-batean. Hala ere, euskal militante batzuen defentsan parte hartu  
zuen gerra kontseilu batean. 1973ko apirilaren 3an hil zen, hogeita hamar  
urte bete zituen egun berean.

## **TXABIREN HERIOTZA**

1968ko ekainaren 7an, Guardia Zibilak kontrol bat jarrita zeukan Tolosa-  
ko Olarrain auzoan, errepideak Bidania, Errezil eta Azpeitirantz jarraitzen  
duen edo Alegia, Itsasondo eta Beasainen barrena Gipuzkoako hegoalde-  
rantz jotzen duen lekuan. Guardia zibilak 30 pertsona inguru miatzen eta  
identifikatzen ari ziren. Txabi Etxebarrieta ere kontrolean geldiarazi zuten,  
Iñaki Sarasketarekin batera. Nor zen ohartu zenean, agente batek bihotza  
alderik alde zulatu zioten bi tiro bota zizkion bertatik bertara. Txabi mo-  
mentuan bertan hil zen. 23 urte baino ez zituen.

Eszenak, hala ere, lehen parte bat izan zuen egun horretan bertan. Goizean,  
Iñaki Sarasketa eta Txabi Etxebarrieta Donostiatik Beasainerantz zihoazen,  
lapurtutako auto batean eta matrikula faltsuarekin. Beasainen Jokin Go-  
rostidirekin elkartzekoak ziren, Loinazko San Martinen monumentuaren  
ondoan. Gorostidik, Eibartik abiatuta, Gipuzkoan egin beharreko ekintza  
batzuetarako leherkariak eman behar zizkion Txabiri.



Txabi Etxebarrieta eta Gorostidi ETako liberatuak ziren eta klandestinitaterik zorrotzenez aritzen ziren. Txabi, Derion Poliziarekin izandako tiroketa batetik ihes egin zuenetik zegoen klandestinitatean; Gorostidi, berriz, Tolosako Urkizu auzoan Poliziarengandik ihes egin zuenetik. Derioko tiroketan Jesus Mari Bilbao Barrera *Balduino* atxilotu zuten.

Aduna parean saihebidetako bat hartu beharra zegoen, errepide nagusian obrak egiten ari zirelako, eta Guardia Zibil motorizatuko agente bi trafikoa zuzentzen ari ziren. Obrak atzean utzi eta gutxira, Etxebarrieta eta Sarasqueta ohartu ziren guardia zibiletako bat beraien atzetik zihoala motoan, gelditzeko keinuak eginez. Villabonako sarreratik oso hurbil zeuden. Guardia zibilak ibilgailuaren paperak eskatu zizkien eta dokumentazioan ageri ziren zenbakiak motorreko zenbakiekin alderatzen hasi zen. “Ez datoz bat” esan zuen, eta ETako militanteengana jiratu zen. Orduan, Txabik pistola atera zuen eta tiro egin zion agenteari. Jose Pardines zuen izena eta momentuan bertan hil zen.

Berehalaxe, ETako bi kideak Tolosara joan ziren, erakundearen laguntzaile baten etxera. Zenbait ordu eman zituzten bertan ezkutaturik, baina, etxea “erreta” egon zitekeela susmatuz, alde egitea erabaki zuten. Bidean, Olarraingo kontrolarekin topo egin zuten eta Iñaki Sarasketak ihes egitea lortu zuen. 19 urte zituen.

Sarasketak Errezilera iristea lortu zuen, baina biharamunean herriko parrokiaren atxilotu zuten, sakristauak Guardia Zibilari jakinarazi baitzion bertan gorderik zegoela. Hilabete horretan bertan epaitu, eta hiltzera kondenatu zuten. Heriotza zigorra kenduta, 1977an espetxetik irten zen eta Norvegiara deportatu zuten. 2017ko abuztuan hil zen.

1978ko martxoan, Benta Haundikoa gertatu eta hamar urte geroago, ETak guardia zibil bat hil zuen Adunan. Erakunde armatuak azaldu zuenez, Txabiren kontrako segadan parte hartu zuten agenteetako bat zen: Jose Maria Acedo Panizo. Ordurako, erretiratuta zegoen eta enpresa bateko segurtasun burua zen. 1968ko gertaerak jazo zirenean, ordea, Guardia Zibilaren Andoingo postuko komandante burua zen.

## AURRETIAZKO HAUSTURAK

ETA 1958an jaio zen. 1960ko hamarkadaren erdialdean V. Biltzarra egin zuen eta, bertan azaleratu ziren lehen desadostasun sakonen ondorioz, Mugimendu Komunista sortu zen, joera maoistakoa. Erakundeak eta, bereziki, militanteek denbora tarte labur horretan izan zuten bilakaera ideologikoa izugarria izan zen, erakunde armatuaren historiako bizkorrena ziur aski.

Bere herriaren historia ezagutu nahi zuen ikasle multzo batek eratutako ikasketa talde gisa sortu zen ETA. Ikasle jakinguratsu haiek ikur debekatuak aldarrikatu zituzten (ikurrina eta Zazpiak Bat, besteak beste) eta euskarara hauspotu zuten nazio identitatearen ardatz gisa.

Prozesu azkarra izan zen, baina inola ere ez erraza. Batetik, ordurako mende erdia gaingitua zuen teoria bat alboratu behar izan zuen (Sabino Aranaren teoria). Bestetik, ordura arte estatuko sektoreei soilik omen zegokien teoria bat (sozialismoa eta komunismoa) lantzen hasi behar izan zuen. Gainera, ia hutsetik abiatuta kudeatu behar izan zuen bi teoria horien arteko uztarteketa. Horretarako, deskolonizazio prozesuei lotutako nazioarteko korrante bat hartu zuen eredutzat: nazio askapenerako fronteak, batez ere Aljeriako FLN, hurbilena zelako eta Frantzia metropoliaren kontrako gerra irabazi zuelako. Hain zuzen ere, hil zutenean Txabik aldean zeraman pistola Aljeriako gerran erabili zen.

Arana anaiek XIX. mendearen bukaeran formulatu zutenetik, teoria subiranistak bi joera izan zituen. Gainera, bi joera horiek etengabe agertu ziren Sabino Aranak sortutako alderdiaren historian.

Lehen joeraren oinarri nagusia Sabino Aranak nabarmendu zuen eta espetxe zigorra ekarri zion independentzia kontzeptua zen. Joera horrek EAJn eragin zuen hausturaren ondoren, buruzagi independentista berriak sortu ziren, hala nola Eli Gallastegi. Bigarren joera “posibilista” zen, autonomista, eta Espainiako Estatuaren errepresioa nabariagoa izan zen garaietan hartu zuen indarririk handiena. Primo de Riveraren diktadura (1923-1930) garai horietako bat izan zen. Joera horren erreferentzia nagusia Engracio Aranzadi *Kizkitza* izan zen.

1930ean, bi joerek bat egin zuten, justizia sozialaren eta independentzia nazionalaren helburuak ildo bakar batean uztartzen saiatu zen ezkerreko euskal alderdi berri bat (EAE-ANV) sortu baino apur bat lehenago. EAJren teoria sabindarrak helburuei begira planteatzen zituen postulatuak izugarri arkaikoak ziren (konfesionaltasuna, adibidez). XIX. mendean Euskal Herriko bizitza politikoan hegemonikoa izan zen karlismoarekin hautsi zuela esaten zuen arren, haren iturri askotatik edaten zuen oraindik.

Korronte sozialistei dagokienez, Sabino Aranaren diskurtsoetan aipatzen zen bi komunitateren arteko bereizketak jatorriaren arabera banatutako euskal gizarte bat irudikatzen zuen (bertokoa eta migrantea). Salbuespenak salbuespen, diskurtso sozialistak langileen nazioarteko aberria aldarrikatzen zuen, marxismo erreformatuaren teoriari helduz, nahiz eta, praktikan, teoria horiek talka egiten zuten Espainia batu eta bakar baten aldeko apustu nabariarekin.

Hala, ETA jaio aurretik, eta Espainiako gerraren garaiko aliantzak alde batera utzita (EAJ Errepublikaren alde lerratu zen), bi joera horiek (abertzalea eta sozialista) bateraezinak ziruditen. Azpimarratzekoa da ETako lehen militante gehienak gerran garaituak izan ziren ingurune abertzaleetatik zetozela. Beraz, ariketa hura ez zen izan bi komunitatek bat egitearen emaitza, baizik eta komunitate horietako batek bestearen izaeraz egin zuen hausnarketaren fruitua.

Testuinguruak berebiziko garrantzia izan zuen prozesu horretan. 1960ko hamarkadako langile grebek zeharo markatu zuten ETako lehen militanteen ingurunea, bertan islatuta ikusi baitzituzten eztabaida politiko zahar eta berriak. Gerra ezagutu ez zuen eta 1947ko eta 1951ko greba orokorren ondorioz atxilotutako eta erbesteratutako sindikalistak ordezkatu zituzten beste buruzagi sindikal batzuk zituen langile belaunaldi horrek soldata duinak aldarrikatu zituen ingurune inflazionista batean.

Beste faktore garrantzitsu bat migrazioa izan zen. Batetik, Espainiako landa eremuan pobrezia zen nagusi –historia osoan bezala– edo, zenbait lekutan, garai hartan zabaldu zen. Bestetik, “garapen polo” berrietan langileak behar ziren. Gehienak Euskal Herrian eta Katalunian zeuden, eta jende askok hara migratu zuen. Barne-migrazioa ere egon zen, Nafarroatik Bizkaira eta Gipuzkoara nagusiki.

Langileen klase kontzientziak, migrazioak, nazioarteko testuinguruak eta euskal kulturaren berpizkundeak osatzen zuten corpus berezi hori izan zen ETaren sorburua, eta ez alderantziz. Militanteak sektore askotatik iritsiko ziren erakundera. Hasieran, ikasleen eremutik gehienbat (Txabi, esaterako), baina baita fabriketatik ere. Fabriketan, ETak ere parte hartu zuen lehen Langile Batzordeak (geroago, CCOO) eratu zituzten korronte sindikal berrien sorreran.

## **EUSKAL UDABERRIA**

Mugimendu politiko eta sozial berriak ez ezik, erresistentziak kultur adierazpide berriak ere sorrarazi zituen 1960ko hamarkadan. Euskal kulturaren, euskararen eta, oro har, euskal identitatearen defentsa ezinbestekotzat jotzen zen Euskal Herria bizirik iraunarazteko eta etorkizunari era egokian erantzuteko. Euskal kulturaren berpizkundea guztiz autonomoa izan zen eta oso ezaugarri bereziak izan zituen. Honako hauek izan ziren izaera berri eta berezi hori eman zioten arrazoi nagusiak: euskal gizartearen motorrek gure herriaren biziraupen fisikoa bermatzeko hautatu zituzten gakoak, erbesteko euskal instituzioen eta Euskal Herriko egoera errelaren arteko urruntasun handiegia, eta belaunaldien arteko uztartze lana egingo zuen zubirik ez egotea.

Abertzaletasun historikoak uste zuen posiblea zela euskal kultura tradizionala mantentzea ildo orokor gutxi batzuekin, baina errealtateak behin eta berriro erakusten zuen hori ezinezkoa zela, frankismoak gizarte osoa zapaltzen zuelako, arlo eta eremu guztietan. Kartzela, tortura eta miseria ziren frankismoaren adierazpiderik mingarrienak, baina dekretuz hispanizatutako gizartearen arlo guztietara esportatzen zituen bere aurreiritzi inperial murrizak: euskara debekatuta zegoen, ikurrina jazarrita, txistua gutxietsita, latinezkoa edo gaztelaniazkoa ez zen inprimatze oro abolituta, eta irakaskuntza faxista sakralizatuta. Euskal identitatearen aldarrikapen maila zein zen oso argi erakusten duen adibide bat jarriko dugu: 1969an, EGIk kanpaina bat egin zuen gazteei kaikua jantz zezatela eskatuz, euskal janzki hori erabiltzeko debekua kenartzeko.

“Arnasa hartuko dugu –esaten zuen Jorge Oteizak–, euskal arimak beste era batera arnasten duelako”. Euskal herririk gabe ez dago proiektu politikorik, euskal herria bere historiaren egilea eta protagonista delako. Eta, subjektu aktiboak bere transzendentziaren bizi-kontzientzia izan zezan, izaera hori ematen zioten berezitasun eta nolakotasunen jabe izan behar zuen. Euskararik gabe, lurralderik gabe eta irakaskuntza propiorik gabe ez zegoen euskal proiekturik. ETaren ustez, EAJk ahaztu egin zuen hori.

EAJk gordinki deskalifikatzen zuen bere ezkerrean edo, behinik behin, bere kontroletik kanpo mugitzen zen guztia. Besteak beste, hor aritzen zirenak “komunistoideak” edo “biolentoak” zirela esaten zuen. Bestetik, ETak eta bere inguruak esaten zuten abertzaletasun historikoa ideologikoki ankilosatutako ente bat zela, Estatu Batuen atzerri politikarekiko menpekotasun handiegia zeukala eta espainiar aliantza antifrankista baten jarraitzaile itsua zela.

Desadostasun estrategikoak herritarren eremuan eta kulturaren arloan ere agertzen ziren. ETAREN iritziz, euskal gizartea ezin zen arraza kontzeptuarekin lotu. EAJK, ordea, hor jartzen zuen indarra, termino hori, berez, kontzientzia nazionala menderen mendetan iraunarazteko baldintza nahikoa izango zelakoan.

Jose Maria Benito del Valle, ETAREN fundatzaileetako batek, hau idatzi zuen *Branka* aldizkarian: “Gure arazoa ez da gutxi-asko gure inguruko herrialdeetakoez bestelakoak izango liratekeen egitura politiko batzuk lortu ahal izatea soilik. Botere politiko propioa izango duen Euskal Herri bat erdiestea ezinbesteko helburua da guretzat. Baina hori ez litzateke aski izango. Botere politiko hori atzerriko hizkuntza baten eta kultura baten zerbitzura egongo balitz, ziurtasun osoz esan ahalko genuke gure ahaleginek porrot egin dutela. Euskadi ez litzateke Euskal Herria izango, ezpada Espainiako eskualde bat. Kasu horretan, arrazoi osoz esan ahalko litzateke gure borroka separatista dela, haren xedea Espainiako eskualde bat Espainiako Estatuaren testuingurutik bereiztea izango litzatekeelako, helburu bakar batekin: espainiar hizkuntza, kultura eta idiosinkrazia iraunaraztea”.

1973an, *Hautsi* aldizkariaren bidez, ordura arte aintzat hartu ez zen arlo horren garrantzia azpimarratu zuen ETAK, garaiaren garrantzia ere nabarmenduz: “Faxismo frankistak 1936-39ko gerra irabazi zuenetik, Euskadik zapalkuntza sistematiko eta izugarri gogorra pairatzen du gizarte jardueraren arlo guztietan. Kulturaren eta ideologiaren eremuan, eskola arma pribilegiatu gisa erabili da ideologia faxista zabaltzeko eta euskal kulturaren osagai guztiak suntsitzeko. Ildo horretan, euskara bereziki gorrotatua izan da, euskal nortasunaren bereizgarri nagusia delako”.

Kataluniako eta hizkuntzen normalizazioan arituak ziren beste herrialde batzuetako esperientziak eredutzat harturik, 1963an euskara literarioaren batasuna finkatzeko lehen urratsak egin ziren, garrantzi handikoak hizkuntza berreskuratzeko eta salbatzeko. Baionan (1963) eta Arantzazun (1968), Koldo Mitxelenak euskara batuaren gutxieneko oinarriak aurkeztu zituen, gure hizkuntza kulturaren transmisiorako baliabide bihurtu zedin.

1966an, Manuel Fraga Espainiako Informazio eta Turismo ministroak prentsa lege berri bat iragarri zuen. Horrela, euskaraz agitaratzeko bide berriak ireki ziren, baina oso estuak oraindik. Durangon, Euskal Liburuaren Azoka jaio zen eta 1966an euskarazko 680 liburu bildu zituen. Hamarkadaren amaiera aldera, berriz, euskararen zabalkunderako funtsezkoak izango ziren zenbait aldizkari sortu ziren: *Zerkuko Argia* eta *Goiz Argi* Gipuzkoan, *Principe de Viana* Nafarroan, *Herria* Lapurdin eta *Anaitasuna* Bizkaian.

Kulturaren arloan, hamarkada horretako beste gertaera garrantzitsu bat euskal kantagintza berriaren sorrera izan zen. Ez Dok Amairu mugimendua osatzen zuten abeslariak ikuspegi euskaldun batetik sortzen zituzten beren abestien musika eta letrak. Beste sektore batzuetan gertatu zen bezala, Xabier Letek, Lourdes Iriondok, Artze anaiek, Mikel Laboak, Julen Lekuonak eta beste kantautore batzuek ordura arteko ibilbide historikoan egin ziren saiakera isolatuak jaso zituzten beren kantagintzan. Ipar Euskal Herrian, bide hori bera jorratu zuten Etxamendi eta Larralde edo Pantxoia eta Peiok.

Lehen ikastolak 1960an sortu ziren, eta hamar urte geroago (1970ean) hiru eta bederatzirte bitarteko 11.400 ikasle zituzten. 1972an, ikasle kopurua 15.000 ingurukoa zen. Ikastolen esperientzia Gipuzkoan jaio zen, baina ordurako euskal lurralde guztietara hedatuta zegoen eta Euskal Herriko muga naturalak ere gainditzen zituen. Ipar Euskal Herrian hiru ikastola zeuden, Gipuzkoan zortzi mila ikasle inguru, Bizkaian hiru mila eta bostehun, eta Araban eta Nafarroan mila eta bostehun. Gainera, ikastolak ireki ziren euskal diasporak presentzia handia zeukan hainbat lekutan ere (Caracasko ikastola da aipagarriena).

Sorkuntzaren loraldi oparo horretan, ekimen berriak agertu ziren artearen arlo orokorrean ere, hala nola Euskal Eskola mugimendua. Lau taldetan egituratuta zegoen: Gaur (Gipuzkoan), Emen (Bizkaian), Orain (Araban) eta Danok (Nafarroan). Hasieran, bosgarren talde bat eratzeko asmoa zegoen (Baitia, Ipar Euskal Herrian), baina, zailtasunen ondorioz, proiektua bertan behera geratu zen.

Euskal Eskola mugimendua osatzen zuten talde guztien helburua euskal kulturaren arloko beharrei erantzutea zen. Gasteizko Orain taldeak honakoa adierazi zuen: “Ez dugu patroikoz kosmopolitarik nahi eta gure herrian integratuta jarraitu nahi dugu, gaur egungo kultura bat eta ondasun kulturalen banaketa justuagoa lortzea helburu. Justiziazkoa eta behar-beharrezkoa da. Artea eta kultura guztiontzat dira. Artea eta kultura egun orotarako dira”.

## **NAZIOARTEKO TESTUINGURUA**

1960ko urteetan (Txabi Etxebarrietaren eta haren belaunaldiaren hamar-kadan, alegia) planetaren banaketa koloniala irauli zuten gertaera gogoan-garriak jazo ziren mundu zabalean. 1959ko urtarrilaren 1ean, bizardunak garaile sartu ziren Habanan, txalo eta gora artean. Kubako iraultzak oso esanahi berezia izan zuen Euskal Herriko gizon-emakumeentzat; hain berezia, ezen hamarkada horretako “gizon bilatuena” (Mikel Etxeberria) Kuban errefuxiatu baitzen Iraultzaren laguntzarekin. 1969an, Poliziak ETAREN zuzendaritzaren parte bat atxilotu zuen Bilbon. Mikel Etxeberriak ihes egitea lortu zuen, zaurituta, eta Kuban gorde zen. Segada hartan atxilotutakoak Burgosko Prozesuan epaitu zituzten.

Afrikan sortutako estatu berri gehienek (Saharaz hegoaldekoak) 1960an eskuratu zuten independentzia. Frantziako Estatuaren eta Portugalen inperioak desegiten hasiak ziren. Eta, abiadura ezberdinekin, Tunisiako, Marokoko, Aljeriako eta Angolako matxinadek independentzia ekarri zuten.

Nazio Batuen Gutunak (1948) matxinadarako eskubidea aipatzen zuen dokumentuaren hitzaurrean. Orduz geroztik, planeta osoko erakunde iraultzaile askok argudio gisa baliatu dute aipamen historiko hori. Zenbait urte geroago, 1960ko abenduaren 14an, Nazio Batuen Erakundeak beste dokumentu bat onartu zuen. Euskal Herrian ez zuen oihartzun handirik izan, Mugimenduko prentsak (legalizatuta zegoen bakarra) ez baitzuen aipatu ere egin, baina haren tramitazio hutsa berritasun nabaria zen nazioarteko agertokian.

Dokumentu hartan autodeterminazio eskubidea onartzen zen, kontzeptu unibertsal gisa. Ebazpena onartzeko Nazio Batuen Batzar Nagusian egin zen bozketan abstenitu ziren herrialde bakarrak Australia, Britainia Handia, Belgika, Dominikar Errepublika, Espainia, Estatu Batuak, Frantzia, Portugal eta Hegoafrika izan ziren, hau da, estatu kolonizatzaile eta arrazistak.

Deskolonizazio gatazken artean, ETAK arreta berezia eskaini zion Aljeriakoari. Oso erreferentzia hurbila zen eta, gainera, metropoli etsaia euskal gatazkaren parte zen: Paris. Aljeriako erresistentziarekiko eta, bereziki, Nazio Askapenerako Frontearekiko harremanek eragin handia izan zuten ETAREN teoria iraultzailearen sorkuntzan. ETAREN teoria frontistaren jatorria Vietnam zen, baina beste gerrilla talde batzuek ere garatu zuten, haien artean Aljeriako FLNk. Bere garaian Gramscik planteatu zuen ideia berreskuratzen zuen: hegemonia fronte guztietan lortu behar da. ETAREN hausnarketaren arabera, armatua, politikoa, ekonomikoa eta kulturala ziren fronterik garrantzitsuenak.

1961eko maiatzaren 20an, negoziazioei ekiteko asmoz, Frantziako Estatuak aldebakarreko su-etena eman zuen (hilabete batekoa) eta 6.000 preso politiko aljeriar askatu zituen. Urtebete geroago, Aljeriaren burujabetza aitortu zuen. Frantziako Evian herrixkan –Leman aintziraren ertzean eta Suitzako Lausana eskualdeko kostaldearen aurrean–, bi delegazioek bilera amaiezinak egin zituzten. Behin baino gehiagotan elkarrizketak era odoltsuan eten zituen arren, Frantziak bere lurraldean preso zeuzkan bost buruzagi aljeriar askatu zituen, negoziazioetan parte har zezaten. Bi aldeen arteko mesfidantzak zirela eta, hasieran bazirudien elkarrizketa haiek artifiziozko suak izango zirela, baina azkenean autodeterminazio erreferenduma ekarri zuten. Aljeriar herriaren parte-hartzea ezin handiagoa izan zen.

1964an, Frantziako Estatuan epaituak izan ondoren kanporatu zituztenean, Eneko Irigarai eta Julen Madariaga Aljeriara joan ziren. Madariagak beherala ihes egin zuen herrialdetik, baina Irigarai Aljerren geratu zen 1977ra arte, erakunde armatuaren eta egoitza Aljeriako hiriburuan ezarrita zeukaten mundu zabaleko gerrilla talde ugarien arteko zubi lana egiten. 1977an, ETAm-ko eta ETApm-ko berrehun militante inguru Aljeriako entrenamendu eremuetan trebatu ziren.

1960ko hamarkadan, beraz, NBEk Afrikako nazio berriak onartu zituen eta negoziazioak ireki ziren metropoli batzuen eta haien kolonia ohien artean. Testuinguru horretan, ETak bere eskuetan hartu zuen erresistentziaren lekuko itzalia. Erresistentziak zutik jarraitzen zuela adieraziz, bere etorkizuneko estrategia iragarri zuen, zehaztasun handirik gabe bazen ere: “Euskal Erresistentzia proportzio erraldoiak izango dituen fase berri baterako prestatzen ari da. Presta gaitzezen denok hurbiltzen ari den ordu handirako”.

Iraultza giro hartan, emantzipazio mugimendu berrien idazlan eta teoria iraultzaileak zabaltzen hasi ziren. Haien planteamenduek bete-betean jotzen zuten Sobietar Batasunak beraren aliatuak ziren alderdi komunistentzat eta, bereziki, Espainiakoarentzat proposatzen zuen “adiskidetze nazionalaren” aurka.

Gerra Hotzaren garaian Moskuk egiten zuen irakurketaren arabera, helburua jadanik ez zen iraultza mundu osoan egitea, baizik eta herrialde zehatz batean defendatzea eta finkatzea (SESBen, hain zuzen ere). Irakurketa horrek eta nazioarteko komunismoan gertatu zen hausturak eragin handia izan zuten Euskal Herrian, baina ez PCE indartsua zelako –zelula klandestino batzuk baino ez zituen–, baizik eta bestelako corpus teoriko iraultzaile bat sortzen joateko bidea irekitzen zuelako.



Hala, Franz Fanon aljeriarrak, Ho Chi Minh vietnamdarrak, Che Guevara kubatarrak eta Mao Zedong txinatarrak zekartzaten haize berriak mundu osora hedatzen hasi ziren eta hamarkada horretako militante independentistak kutsatu zituzten. Maok 1949ko txinatar iraultza garaileari buruz idatzi zituen liburuek, esaterako, zabalpen handia izan zuten, frantsesera itzultita. Klasiko marxistak (Lenin, Stalin...) Espainiako Estatuko talde ezkertiar klandestinoen erreferentziak izan ziren, baina eragin apalagoa izan zuten militante independentisten artean.

Horrek guztiak ezker iraultzailea markatu zuten bi gertaera gogoangarri eragin zituen Europan. Batetik, Frantziako 68ko Maiatza. Elkar harturik, ikasleek eta langileek De Gaulleren gobernua ezegonkortu eta iraultza berriaz baten itxaropena piztu zuten. Bestetik, Pragako 1968ko udaberria, sobietar sozialismoa eta Txekoslovakiako instituzioak eta sektore jakin batzuk aurrez aurre jarri zituen prozesu politikoa. Urte horretako abuztuan, tropa sobietarrek herrialdea inbaditu eta prozesua geldiarazi zuten.

Parisko eta Pragako gertaerek ez zuten aldarazi euskal independentismoaren egoera, baina lurrikara batzuk eragin zituzten eta, horren ondorioz, ETAREN barneko bi korrante eszisionista handiak sortu ziren: maoista eta trotskista. Bi gertaera horien inguruko albisteak erbesteratuei soilik iristen zitzaizkien, Espainiako Estatuan zentsura ezin hertsia zelako. Horregatik, mugimendu politikoak ere erbesteratuen artean gertatuko ziren nagusiki.

## **ESTRATEGIA IRAULTZAILE BATERANTZ**

1963an, Federiko Krutwigek *Vasconia* plazaratu zuen, Fernando Sarrailh de Ihartza goitizenezekin. Askotan esan da liburu horrekin ETA behin betiko aldendu zela EAJk ordezkatzeko abertzaletasun historikotik. Ziur aski, baieztapen hori ez da erabat zuzena, baina ziurtasun osoz daiteke *Vasconia*-k jeltkideen ildotik aldentzen ari zen mugimendu abertzalearen hainbat hausnarketa laburbildu zituela, gordintasun handiz pasarte batzuetan. Beren gogoetak sostengatuko zituen erreferentzia baten bila ari zirenen artean oso zabaldua zegoen sentipen baten emaitza izan zen.

1942an, Federiko Krutwig Euskaltzaindian sartu zen, 22 urterekin. 1953an, aita Villasante akademian sartu zenean, Krutwig arduratu zen euskaltzain berriaren sarrera hitzaldiari erantzuteaz. Hain sutsuki mintzatu zen, ezen Espainiako Poliziak haren kontrako atxilotze agindua eman baitzuen.

Krutwigek erbestera jo zuen eta Essen hirian jarri zen bizitzen (Alemania). 1960an, Euskal Herrira itzuli zen, Miarritzera, eta oso gutxi iraun zuen mugimendu politiko bat sortu zuen. 1961ean, harremanetan jarri zen ETAKo lehen errefuxiatuekin.

ETA lantzen ari zen ideologia berriari dagokionez, liburuak bost elementu aipagarri jasotzen zituen: antiklerikalismoa, antiinperialismoa, EAJren erantzukizun zuzena zabarkeria nazionalean, euskara proiektu nazional baten ardatz gisa, eta borroka armatua nazio askapenerako bitarteko gisa eta ez erresistentziaren oinarri gisa. Bost elementu horiek oso eztabaida bortitza piztu zuten EAJrekin, bete-betean jotzen baitzuten estrategia jeltzalearen oinarri politikoaren kontra.

Iraultza antikolonialisten garaipenek eta Krutwigen *Vasconia* liburuak piztu zuten euforia militantearen eraginez, hainbat hausnarketa mamitu ziren 1960ko hamarkadaren lehen erdian. Haietako batek, maoismoa erreferentziatzat harturik, “luzaroko gerra” edo “gerra iraultzailea” aldeztu zuen. Errepresioak suntsituko ez zuen egitura bat sortu behar diren inguruko lehen hausnarketak izan ziren.

Teoria horren adierazpide nagusia *La insurrección en Euskadi* izan zen, gerrilla mugimenduen arloko azken esperientziak eta Krutwigek *Vasconia*-n idatzitako perlak jasotzen zituen liburuxka bat. Ekarpen aipagarrienetako bat “etapismoa” izan zen, zeinaren arabera koiuntura bakoitzak estrategia jakin bat eskatzen baitu azken helburuak etapaka edo era mailakatuan erdiesteko. Kontrastatutako esperientziak gorabehera, ETAREN lehen etapa “agitazioa” izan behar zela esaten zuen.

Hasierako irakurketa baikor haien ostean, askapen prozesuaren inguruko hausnarketa pausatuagoak egiten hasi ziren. *Hacia una estrategia revolucionaria vasca* idazkian, oso argigarria zen esaldi bat zegoen: “ETA barruan –ikas-taroetan, esaterako– matxinada eta iraultza giroa bizi zen; baina, militantea kalera berriz irteten zenean, ETA “hormak margotzen dituzten horiek” direla entzuten zuen”. Idealistatzat jotzen zen aurreko etapa intsurrekzionala.

1965ean, ETAREN baitan Txabiren eta Jose Antonioren eragina nabaritzen hasi zenean, erakundeko militanteak hiru korronte handiren artean mugitzen ziren. Krutwigen ekarpenak gorabehera, hiru korronte haien jatorria atzerriko esperientziak ziren. Txabi izango zen, geroxeago, Euskal Herrirako estrategia propio bat planteatuko zuena, Euskal Langile Herria subjektutzat hartuz.

Hurrengo hamarkadetan ezker abertzalea markatuko zuen corpus teorikoa sortu aurretik garatu ziren hiru joera haiek lotura zuzena zuten Europako ezkerrearen eremu zabalean nagusi ziren hiru korrontekin. Lehen korrontea “kulturalistek” osatzen zuten. Hizkuntza berreskuratzeari dagokionez elkarren artean oso desberdinak ziren hainbat esperientzia hartzen zituzten eredutzat, hala nola Israelgoa (hebreera) eta Finlandiakoa (suomiera). Ezker abertzalean hegemonikoak ez ziren arren, egundoko eragin soziala izan zuten. ETAk ez ezik, erakundearekin inolako loturarik ez zuten sektore batzuek ere lan ikaragarria egin zuten euskara, hezkuntza edo literatura berritzeko.

Bigarren korrontea “obrerista” deiturikoa zen. Haren jatorria fabrika eta tailerretako langile mugimendua zen, inoizko dinamikoena Espainiako Bigarren Errepublikaz geroztik. Greba batzuk sakon iltzaturik geratu ziren euskal herritarren imajinario kolektiboan (Etxebarriko Bandas lantegikoa bereziki). Abangoardia sindikal edo politiko batek edo, kasu batzuetan, langileek euren batzarren bidez zuzendutako iraultza sozial baten itxaropena piztu zen. Hasiera batean, “batasunak indarra dakar” esaera katoliko zaharra edo “munduko langileok, elkar zaitezte!” kontsigna marxista indar handiz hedatu ziren langileen artean, baina gero, denborarekin, alderdi interesek langile mugimenduaren sakabanaketa ekarri zuten

Langile Batzordeen sorrera har dezakegu joera horren adibidetzat. Batzordeak kontrolatzeko lehia bizia egon zen eta, azkenean, Alderdi Komunista nagusitu zen. CCOOk hartu zuen norabide “espainolistaren” aurrean, ETAk Langile Abertzaleen Batzordeak sortu zituen (LAB), 1970eko hamarkadako bigarren erdian. Joera trotskitakoak izanik, ETA VI.eko militanteek CCOOn afiliatuta jarraitu zuten.

Hirugarren korrontea, eta 1965ean nagusia, “terzermundista” izenekoa zen. Erreferentziatzat hartzen zituen hala hurbileko esperientziak (Aljeriakoa bereziki) nola urrutikoak (Kubakoa eta Vietnamgoa). Hasierako agitazio etapa gaindituta zegoela uste zuen eta, horrenbestez, jauzi iraultzaile bat egitea planteatzen zuen: borroka armatua erabiltzea askapenerako tresna politikoa gisa.

Etapari berri horretarako lehen teorizazioak egiteko orduan, korronte horretakoek Mao Zedongen ideiak kalkatu zituzten, batez ere *Gerra handiaren hiru etapak* liburuan jasotakoak. Lehen etapa –ETAk bere egiten zuena– gerrilla gerra zen. ETAk diskurtso eta egitura militar bat osatu nahi zuen eremu zibiletik, gerra irekiera iristeko helburuarekin. Hala ere, konfrontazio armatuarekin zerikusia zuen guztian esperientzia eta heldutasuna falta zitzaizkionez, erakundearen testuetako batzuk baikorregiak ziren oraindik.

## **BULEGO POLITIKOA**

Adar militarren arduradun Xabier Zumalderi jarraitu zioten militanteek osatutako *Los Cabras* taldea izan zen korronte “terzermundistakoek” hartu zuten norabidearen adierazle nagusia. Eztabaida ideologikoa espresuki alboratu, eta prestakuntza militarrean soilik aritzen ziren, Zumalderen gidaritzapean. Ekintza sinboliko batzuk egin zituzten, hala nola Bizkaiko herrixka bat zenbait orduz “askatzea” eta goi tentsioko kabletan ikurrinak jartzea.

Federiko Krutwig ere hautu horren teorizatzaile izan zen: “Menditsuak diren baina industrializatuta dauden herrialdeetan –Euskal Herrian, esaterako-, jardunbidea erdi-mendikoa izan ahalko da. Hots, mendian jardun baina erdi kontrolatutako herrietan babestu. Herri horiek babesleku ego-kiak izango dira gerrillari taldeentzat, okupazio indarrak segurtasunik gabe mugituko baitira gauzez inguruotan”.

Nolanahi ere, haiek ez ziren izan apustu militarista bakarrak. Fidel Castrok eta Che Guevarak Sierra Maestran egin zutena eredutzat hartuz, eta makiek arrakastarik gabe egin zuten bezala, batzuek proposatzen zuten hasierako talde bat kokatzea ondo aukeratutako leku zehatz batean, iraultza inplementatzeko foku gisa. Lekua ere aukeratu zuten: Aralar mendilerroa. Proposamena eztabaidatu egin zen, baina ez zuen inolako ibilbiderik izan.

Garai hartan, Bulego Politikoak bere gain hartu zuen barne nahiz kanpo jardueraren ardura. Horretarako arrazoiak askotarikoak izan ziren: ETako lehen belaunaldikoen atxilotetak (1961), askapen borrokari beren ekarpena egiteko irrikaz baina inolako prestakuntzarik gabe erbestera iristen ziren gazteekiko orekak, korronte militaristakoen planteamendu irrealak, eta “kulturalistekiko” tirabirak. Azken horiek eztabaidarako eta militan-tziarako organo propio bat sortu zuten: *Branka* aldizkaria.

Legalak izan zein espetxean egon, militante gehienek ez zekiten zein zen joeren arteko barne-oreka, baina eztabaida hauspotu zuten zenbait elementu azaleratu ziren. Besteak beste, ETaren Bulego Politikoak bere corpus teorikoaren ildo nagusiak azaldu zituen *Zutik* buletinean. Geroago ikusiko zen bezala, militante gehienak ez zetozen bat ildo haiekin.

Hori bai, sektore guztiak ados zeuden gauza batean: oraindik ere diktadorea fisikoki desagertu arte hamarkada oso bat igaro beharko zen arren, gizar-tean aldaketa zantzuak sumatzen ziren jadanik. Oso azalekoak ziren, baina agerikoa zen epe ertainean sakonagoak bilakatuko zirela, Espainiak hala behar baitzuen European homologatua izateko.

Hala ere, noizbait iritsi behar ziren aldaketa haiek bi erreakzio ezberdin eragin zituzten. Batetik, Bulego Politikoak iradokitzen zuen erakundea alderdi politiko bihurtzeko garaia iritsi zela, baina argi izanda klandestinitatean jarraituko beharko zuela. Beste batzuek egiten zuten irakurketa, aldiz, guztiz bat zectorren estatu mailako alderdi marxisten ildoarekin. Haien ustez, langileria nazioarteko ente bat zen, aberrien kontrakoa: “nazionalismoa langile klasearen interesen kontrakoa da eta gogoz nahiz halabeharrez osatzen dugun mendebaldeko mundu honetako egitura ekonomikoen kontra doa”. Militante askok arreta handiz irakurri zuten beste baieztapen bat ere egiten zuten: “langileek ulertu egin behar dute nazio kapitalistetako klase zapalduen arteko parekotasunik zorrotzenak gidatu behar dituela zeregin iraultzaile komunak”.

ETA mugimendu gisa jaio zen eta, beraz, haren oinarri sozial edo soziologikoa ez zegoen erakundea alderdi politiko bihurtzeko prest. ETAREN helburu nagusia burujabetza osoa lortzea zen –hau da, independentzia–, eta, horrenbestez, bera ere ez zegoen estatu mailako alderdi edo mugimendu batean urtzeko prest. Bulego Politikoaren ildo teorikoek lurrikara handia eragin zuten erakundean, batez ere koadro ertainen artean, inork baino hobeto baitzekiten zein zen indarren arteko barne-oreka. Txabi Etxebarrieta talde horretakoa zen.

Idea horiek *Zutik* aldizkariaren 42. zenbakian jaso ziren, eta militantziaren gehiengo handi bat haien kontra azaldu zen. Aldizkaria lantokietan, herrietako jaietan eta ikasleen artean banatu behar zen, baina Bizkaiko eskualde batzuetan suntsitu egin zuten.

Lehen aipatu dugun *Hacia una estrategia revolucionaria vasca* idazkian, disidentzia horren argudioak azaltzen ziren: “Likidazionistek aldeztzen zuten estrategia euskal borroka iraultzailearen edukiaz zeukaten ikuspegiaren ondorio bat zen. Tesi faltsu bat hartzen zuten oinarriztat: Euskadin langileria da klase zapaldu bakarra, eta burgesia, orokorrean, klase zapaltzailea. Horrela, eduki oro ukatzen –likidatzen– zioten Euskal Iraultzari, zeren eta, klase herritarren batasunerako behar objektiborik ez badago, euskal ezauzgarri nazionalak eta klaseen arteko batasunaren esperientzia historikoek ere ez daukate inolako esanahirik iraultzari begira. Kasu honetan, Euskal Iraultzaren kontzeptuak berak ere ez luke zentzurik izango, Euskadiko iraultza Espainiako iraultzaren atal bat besterik izango ez litzatekeelako”.

Egoera horren aurrean, koadro ertainek militanteen biltzar batera deitzeko babes nahikoa biltzea lortu zuten. Segurtasun arauen eta biltzarra prestatzeko denbora faltaren ondorioz, hamarnaka militante batzuk soilik bildu

ziren eta eztabaida presaka egin zen. Horregatik, biltzarra bi zatitan egitea erabaki zen. Lehen zatia 1966. urtearen bukaeran egingo zen eta ponentziak aurkezteko epea ireki zen.

## **V. BILTZARRAREN LEHEN ZATIA**

ETAren V. Biltzarra ezker abertzalearen oroimen kolektiboak gorde dituen sinboloetako bat da. Koiunturaren arabeko egokitzapenak egin diren arren, bertan ezarri zen ildo politiko teorikoak bizirik iraun du denboran zehar. Garai hartan, lehen zatia egin zenean, V. Biltzarra ezinbesteko erreferentzia izan zen ETA erakundea alderdi politiko estatalista bihurtu nahi zuen ildo maoistaren aurrean, eta, geroxeago, ETA VI.leko trotskisten aurrean.

Txabi Etxebarrieta aho batez aukeratua izan zen Biltzarra gidatzeko eta koordinatzeko, 21 urte besterik ez zituen arren oso ondo ezagutzen baitzuen erakundearen barne-egitura. Bi hilabete inguru eman zituen “ETAren barne-organo gorenaren” bilkura prestatzen. Bilerak Gazteluko parroikia etxean egin ziren (Gipuzkoa), 1966ko abenduaren 7tik 11ra bitartean. Zehatz-mehatz, 42 militante bildu ziren, baina, zatiketa abian zelarik, 30 inguru izan ziren eztabaidetan parte hartu zutenak. Erakundearen IV. Biltzarrean aukeratutako zuzendaritzako kide batek bakarrik hartu zuen parte V. Biltzarrean. Horrek oso argi adierazten du militantziaren berritze handia gertatua zela erakunde armatuaren baitan.

Irailetik aurrera, erakunde armatuaren zenbait arlotako arduradunak Hego Euskal Herrira pasatu ziren, Biltzarra prestatzeko eta, bilkurako giroa zein izango zen aztertze aldera, harremanak egiteko. Bestetik, une hartan nagusi ziren hiru korrontek buru-belarri aritu ziren bilkura prestatzen. Guztiek espero zuten ETA indartuta aterako zela V. Biltzarretik.

Teorikoki, ordezkatze sistema erabili zen Biltzarrean parte hartuko zuten delegatuak aukeratzeko (hamar militanteko bat), baina aukeratuak izan zirenetako batzuk Biltzarretik kanpo geratu ziren, koordinazio eta harreman arazoengatik. Hala, beraiek sortu zuten erakundearen historian lehen aldiz, ETAren fundatzaileetako batzuek ez zuten parte-hartzerik izan.

Hainbat ponentzia iritsi ziren V. Biltzarrerera. Lehena Jose Antonio Etxebarrietak idatzitako *Análisis y crítica del españolismo social-chauvinista* izan zen

(*Txatarra Txostena* izenarekin ezagunagoa). Berrogeita hamar orri zituen eta osorik irakurri zen. Bulego Politikoak izandako ibilbidearen kritika egiteko onarriak jasotzen zituen.

Jose Antonio Etxebarrietaren arabera, Bulego Politikoak bide erreformista huts batera eramango zuen erakunde osoa. Izan ere, frankismoaz egiten zuen analisisian oinarrituta planteatzen zuen esku-hartze ildoaren ezinbesteko ondorioa izango zen borroka armatua bertan behera uztea epe labur edo ertainean, baldin eta, zantzu guztien arabera gertatuko zen bezala, Erregimenak demokrazia burgeseko egituren bidez denboran irautea lortzen bazuen. Horren aurrean, Euskal Herriak bere askapen bide propioa hartu behar zuen, erakunde antifrankisten ildotik at.

V. Biltzarraren lehen zatian aurkeztu zen bigarren ponentzia *Txosten Berdea* izan zen. Aurretiaz helarazi zitzaien erakundeko kide esanguratsu batzuei, azter zezaten eta beraien oniritzia lortzeko asmoz. Hainbat militanteren eta txostenaren egileen ikuskera marxista ezberdinak bateratzeko saiakera bat izan zen. Zatiketa saihestu zitekeela pentsatuz aurkeztu zen.

Biltzarrak oreka ideologiko ezberdinen arteko eztabaidan sakondu zuen, ofizialki posizio bakar bat adierazteko. Eztabaia haietan adostu ziren guxieneko puntuak edo posizio ideologikoak Txabi Etxebarrietak idatzitako *Ideoloji baldintzak* ponentzian jasota geratu ziren.

Onartutako ponentzia militante guztiei helarazi zitzaien. Etorkizun hurbilean ETAk garatu beharko zuen estrategia politikoa argitzeko aurrerapauso handia izan zen. Ekarpen aipagarrienen artean, ponentziak esaten zuen “langileria klaserik iraultzaileena” zela, eta honakoa gehitzen zuen burgesiari zegokionez: “gaur egun langileekin elkarlanean aritzen den burgesia nazionala bere egungo praktikan soilik da iraultzailea, behe-burgesia batez ere”. Bi orriko agiri batean horrelako zehaztapenak jasotzeak beren burua ETAREN historiaren oinordekotzat jotzen zuten korrante ezberdinen arteko konfluentziari erantzuten zion.

Bestetik, nabarmentzekoa da Biltzarrak zorroztasun handiz zehaztu zuela zein zen EAJren eta erakundearen esku-hartze ildoaren artean zegoen amildegia. Zehazki, honakoa esan zuen alderdi jeltzaleaz: “arlotan nazionalen nahiz sozialean gaudituta dagoen alderdi bat da”. Biltzarrak arbuia egin zituen hala praktika estatutistak nola Kontzertu Ekonomikoen aldekoak, haren iritziaren enbor beraren bi adar zirelako eta babesten zituzten interesak –burgesak eta espainolak– ETAk adierazitakoen kontrakoak zirelako.

Lehengo Bulego Politikoa iraganeko kontua zen, baina oraindik ere bere bidea egingo zuen denboraldi batez, ETA Berri gisa lehenik eta Espainiako Mugimendu Komunista (MCE) gisa geroago. ETAn, zuzendaritza berriak zazpi kide izango zituen, eta Bulego Politiko berriak bost: Txabi Etxebarrieta, Xabier Elorriaga, Patxo Unzueta, Jose Mari Eskubi eta Jesus Mari Bilbao.

### **NAZIO ASKAPENERAKO MUGIMENDURANTZ**

Aldez aurreko bileretan eta Biltzarrean bertan egon ziren eztabaida bizien ondoren, Bulego Politiko berriak mezua militantziaren artean zabaltzeari ekin zion. *Zutik* erabili zuen horretarako. Txabi Etxebarrieta arduratu zen jarraibideak zehazteaz eta berak idatzi zuen 44. zenbakiko lau artikuluetako bat: “Euskal sozialismoa eta fronte nazionala”. Beste hiru artikuluek honako hauek ziren: “Historia, burgesia eta herria”, “Gure sozialismo espezifikokoaren beharra” eta “Euskal Langile Herria”.

Subjektu historiko bat ehuntzen hasi zen laugarren artikuluko horretan: “Hispaniar inperialismoak eta diktadura ekonomiko-burgesak pairarazten dizkieten alienazioen kontzientzia hartuz, langile herriaren sektore asko beren ahotsa entzunarazten ari dira. Mugitzen dira, beren egoera salatzen dute, zapalduenak dira. Izan ere, langileak badaki burgesak bere larruan pairatzen duela nazio zapalkuntza baina berak zapalkuntza bikoitza pairatzen duela: nazionala eta ekonomikoa. Burgesiak hurrengo karlistadarako oinarriak jartzen dituen bitartean, beste sektore batzuk –ikasleak eta langile xeheak– euren arteko harremanak estutzen ari dira...”.

1967ko urtarrilean idatzitako paragrafo horrek sekulako eragina izan zuen ETAn eta ezker abertzale osoan. Lehen aldiz, argi eta garbi aipatzen zen zapalkuntza bikoitza (“nazionala eta ekonomikoa”). Geroago, terminologia zorrotzuta, zapalkuntza “nazionala eta soziala” izango zen. Langileek pairatzen dute zapalkuntza bikoitz hori, eta, eraikitzen ari zen teoriaren arabera, beraiek izango ziren askapen prozesuaren subjektua.

Bestetik, ETAk Espainiako egoeraren, aliatuen eta ekonomiaren diagnostiko sakon eta zorrotza egin zuen lehen aldiz, haren proiektu politikoa babesten zuten sektoreei arreta berezia eskainiz. Sistemak pairatzen zuen barne-deskonposizioaren aurrean (krisi ekonomikoa, ustelkeria, mezuaren agorpena...), errepresio zuzena erabili zen frankismoaren egiturei eusteko, atzerriko aliatuen onarpenarekin.



Gerra Zibila bukatu zenetik egin zuen bezalaxe, Espainiako armadak bi bi-tarteko nagusi erabili zituen 'statu quo'-a mantentzeko eta justifikatzeko: "espainiar nazioa" zatikatua izateko arriskuaren mamua eta "nazioarteko komunismoaren" kontrako borroka gogorra. Estrategia horretan, laguntzaile izan zituen prentsa eta propaganda sare oso bat, Elizaren hierarkia eta finantza oligarkiako familiak (Negurikoak izan ziren aktiboenak).

1978an, Txabi Etxebarrieta hil eta hamar urte geroago, Jose Miguel Beñaran Ordeñana *Argala*-k 1967ko analisi hura osatu zuen, *ETA Juankarlismoaren aurrean* idazkiarekin. Erakunde armatuak borrokan jarraitzearen arrazoiak azaltzen zituen dokumentu horretan: "Ezin dugu borroka geroratu, demokrazia liberala euskal demokrazia herrikoirantz abiatzeko helburu taktiko bat besterik ez baita guretzat. Erakunde pazifistek ez digute balio horretarako. Oligarkiaren boterea garaitzeko gai izango diren borroka erakundeak sortu behar ditugu, hala botere hori forma diktatorialen bidez erabiltzen bada nola forma liberalen bidez gauzatzen bada. Eta borroka erakundeak borrokan bertan sortzen dira".

Borrokarako konpromisoa adierazteaz gain, testuak burgesia klase-etsaia zela nabarmendu eta langile klasearen papera indartzen zuen. Bigarren Mundu Gerraren ostean mundu zabalean agertu ziren korrante iraultzaile gehienentzat, langile klasea (Euskal Herrian, Euskal Langile Herria) abangoardia iraultzailea zen, eta, leninismoak esaten zuen bezala, alderdi batek gidatuko zuen. ETAk, ordea, Etxebarrieta anaiek finkatutako premisa aldeztu zuen: askapen mugimendua. Horregatik, 1966an eta 1970ean barne-korrante batzuek erakundea alderdi politiko bihurtzea proposatu zutenean, zatiketa gertatu zen. Gehiengoa ETArekin geratu zen, hau da, askapen mugimenduari.

Denborarekin, askapen mugimenduaren kontzeptua zehazten joan zen eta izaera berezia eman zitzaion. Izaera propioa, ETAREN hitzetan. Hala ere, kontzeptu dinamikoa izango zen, etengabe eztabaidatua. Helburuak inoiz ez ziren ezbaian jarri, baina kanpo nahiz barne egituraketaren inguruko eztabaida sakonak egon ziren. Errepresioarekin batera, koiunturak hain izan ziren garrantzitsuak, ezen ETAk behin eta berriro berrasmatu behar izan baitzuen bere burua.

## V. BILTZARRAREN BIGARREN ZATIA

1967ko martxoaren 21etik 26ra bitartean, astelehenetik igandera arte, Aste Santua hastear, ETAko 40 ordezkari jesuitek Getarian zeukaten Gogarte Etxean bildu ziren, V. Biltzarraren bigarren zatia egiteko. Haietatik, 18k soilik parte hartu zuten Biltzarraren lehen zatian, aurreko urteko abenduan.

Abenduan bezala, Txabi Etxebarrieta aukeratu zuten batzarburu. Hainbat ponentzia aurkeztu ziren, haien artean *Txosten Berde* “*berrikusia*”. Txosten Ideologikoa eta Fronte Nazionalari buruzko Txostena ere irakurri ziren, “kulturalistek” osatzen zuten Branka taldeak aurkeztuta. Gutxiengoa izan ziren Biltzarrean eta, handik gutxira, ETA uztea erabaki zuten. Hala ere, haien ponentzia eztabaidatu egin zen.

Federiko Krutwigek monopolizatuta, Branka taldearen ponentziak oso gogor kritikatzan zuen ETAREN historia. “ETAREN historiatik atera daitezkeen ondorioak” izeneko atalean, honakoa esaten zuten sektore horretakoek: “Adar militar bat sortu dugu baina ez da ekintza militarrik egon. ETAK ahoberokeriak botatzen dituen talde bat dirudi, eta ez talde iraultzaile bat. Gure garaipena hitzekoa baino ez da”.

ETA sortzeko abiapuntu izan zen errealismo bera antzeman zitezkeen sektore horretakoek erakundeari egiten zioten kritikan: “Ezin dugu ez ikusiarena egin egungo errealtatearen aurrean, ezin dugu ahaztu Euskal Herriaren hiru laurden desnazionalizatuta daudela; atzerritik etorritako biztanleen kopurua izugarri handia dela eta biztanleria hori nekez sentsibiliza daitekeela nazio auziaz; euskal arazoaren kontra jotzen duten indar ahaltzuak daudela, hala nola Eliza Katolikoa, espainiar karlismoa eta ezkerreko alderdi espainiarrak; euskal langileriaren parte handi bat burgestu samar dagoela”.

Analisi horretan, kritikoez bi akats larri egozten zizkieten ETARI. Lehen akatsa dogmatismoa zen, hau da, kolonizatzailearen kontrako borroka irabazteko gai izan ziren estrategiak Euskal Herrian aplikatu nahi izatea (Vietnamgoa, esaterako). Bigarren akatsa, berriz, politikoa zen. Beraiek deskribatzen zuten egoeraren aurrean ez ikusiarena egitea leporatzen zioten zuzendaritzari: “Etapak ekintzen bidez erretzeko ezgai, hitzen bidez erretzen ditugu. Sota (EA)ko buruzagia) zigortzeko ezgai, mendiko gerrillez hitz egiten dugu”. Kritikoen ustez, zehaztasun falta horrek sortzen zuen egoera konponduko bazen, erakundea Fronte Nazional bihurtzea zen jarraitu beharreko taktika, masa ekintzak bideratzeko, sistemak uzten zituen zirrikitu legalak baliatzeko eta kulturaren arloan eragiteko.

Bere aldetik, *Txosten Berde berrikusia* Euskal Herrian aldaketaren alde zeuden erakunde eta taldeen estrategiak garatzen zireneko koiuntura politikoari buruzko analisiaren eskema osatuagoa baino ez zen. Branka taldearen analisisekin bat ez zetozen ETako sektore gehienen artean adostu zen txosten hori ere oso kritikoa zen erakunde armatuaren hasierako historiarekin. Honela definitzen zuen ETA finkatu osteko garaia: “sugarra bizirik eta piztuta mantentzeko aktibismo hutsa”.

ETAk ordura arte agertu nahi izan zuen izaera ustez soziala ere kritikatzeko, ezkertiaratasun irrealak zela esanez: “gure desorientazioaren eta analisi faltaren ondorioa da, gure nahiak eta errealtatea nahasten baititugu”. Zehazki, IV. Biltzarrean onartutako paragrafo hau kritikatzeko: “masen kontzientzia politikoari dagokionez, borroka politiko-sozialean murgildu direla egiaztatu dugu”.

*Txosten Berdea* idatzi zutenen ustez, masa mobilizazioek ez zuten izaera soziala izan. Nagusiki, arazo nazionalaren inguruko mobilizazioak izan ziren. “Klase kontzientzia ez da aski, kontzientzia nazionala ez da aski, klase kontzientzia nazionala behar dugu, hala egitura kapitalistak nola inperialistak sufritzen ditugulako”.

Teoria iraultzaile bat sortzeari buruzko atalak piztu zuen interesik handiena. Ideologia Batzorde bat eratu zen, eta, oso ordu gutxiko epean, teoria iraultzailea osatuko zuten puntuak idatzi zituen, Biltzarrean aurkezteko. Testu horretan, erakunde armatuak luze eta zabal erantzuten zien hainbat galderari: zer da nazionalismo iraultzailea?, nork osatzen du Euskal Herria?... Testuaren izenburua oso argigarria zen: “ETA Euskal Nazio Askapenerako Mugimendu Sozialista da”.

Biltzarrean eztabaidatu zen hirugarren atala estrategiari buruzkoa izan zen. Teoria iraultzailearen analisia bukatutakoan, bost batzorde eratu ziren. Batzorde bakoitzak bere ondorioak atera zituen, osoko bilkurak guztiak bateratu zituen eta Batzorde Exekutiboa arduratu zen azken idazketa egiteaz. Azkeneko ekarpenak Federiko Krutwigen idazkietan jasota zeuden lehenagotik, eta Biltzarren lehen zatian iragarritakoen oso antzekoak ziren.

Bere garapenerako, euskal prozesu iraultzaileak lau fronte behar zituen: kulturala, politikoa, militarra eta sozioekonomikoa. Fronte politikoaren barruan, euskal Fronte Nazionala zen interesgarriena ETarentzat. Fronte Nazionalaren programak honako aldarrikapen hauek jaso behar zituen: independentzia politikoa Euskal Herriarentzat, batasun nazionala (Ipar eta Hego Euskal Herria) eta euskalduntzea.

Biltzarraren lehen zatian zuzendaritza berria aukeratu zen, eta bigarren zatian bildutakoek Batzorde Exekutibo berria izendatu zuten. Aukeratuetakoz batzuk militante historikoak ziren (Xabier Bareño, Julen Madariaga eta Federiko Krutwig), baina aire berriak zekartzaten kide gazteak ere sartu ziren, hala nola Txabi Etxebarrieta (22 urte) eta Jokin Gorostidi (26 urte).

Lehen zatian azaleratu ziren hiru korranteetako baten hegemoniarekin itxi zen V. Biltzarra. Berez nagusitu zen, bileretan gehiengoaren babesa jasota eta gutxiengoan geratu zirenek beren burua kanpoan utzi zutelako. Egokitzapenak eginda, garatu beharreko ildo politikoa oso ondo finkatuta geratu zen.

## **ETA BAI**

Gure askapen prozesuan paradoxa etengabe bat dago, EAJk ordezkatzeko duen euskal eskuinaren erabaki eta aliantzei ezker abertzaleak egiten dizkien kritiken gaintik azaleratzen den paradoxa bat: estatu kolpe edo efektu kolpe baten bidez boterea hartuko lukeen gutxiengo baten matxinada hasiera-hasieratik baztertuta, askapen prozesuak gehiengoak behar ditu aurrera egiteko. Teoria guztiek ezinbestekotzat jotzen dute hori.

Paradoxa handi horretan, batasuna lortzeko saiakera eta egitasmo guztiek porrot egin dute. Besteak beste, hala gertatu zen Branka taldeak planteatu zuen Fronte Nazionalarekin edo sistemaren Erreformaren aurrean indar abertzale guztiak batera aurkezteko proposamenarekin (Txiberta, 1977). Erdibide gisa, eta prozesu integral batean aurrera egiteari begira, Txabi Etxebarrietak eta haren kideek “Batasuna” izeneko kanpaina diseinatu zuten, 1967ko iraileko *Zutik 47* abiapuntutzat erabiliz. Urbiako landetan egitekoa zen aldarrikapen egun bat izango zen kanpainako ekitaldi nagusia.

Aldi berean, beste kanpaina bat antolatu zen: “BAI” (batasuna, askatasuna, indarra). Erakunde armatuak bi kanpainak babestu eta bultzatu zituen, baina antolatzaileak ez ziren ETAKoak. Hainbat euskal erakunderen egiturak bateratuko zituen fronte nazional komun baten oinarriak jartzeko saiakera bat izan zen.

V. Biltzarraren ostean, ETAK adierazi zuen ez ziola muzin egingo arlo nazionalan, langileen eremuan nahiz esparru antifrankistan beste indar batzuekin akordio globalak edo koiunturalak erdiesteko ezein aukerari, baina, era

berean, argi utzi zuen fronte abertzalearen proiektua izan beharko litzatekeela edozein indar biltzetaren ardatza.

Jakina, erakunde armatuko kide guztiek ez zuten ideia hori babesten. Horri dagokionez, kontuan izan behar da erakundearen sektore garrantzitsu batek ordurako buruan zerabilen baina oraindik jakinarazi ez zuen ildoak beste zatiketa bat eragingo zuela handik bi urtera. Nolanahi ere, bi kanpainak (“Batasuna” eta “BAI”) berdintsuak ziren eta aurrera egin zuten. Haien harira, ETAtik kanpoko sektore batzuek “BAI” abizena jarri zioten erakundeari (“ETA BAI”), V. Biltzarraren lehen zatian eszinditutako talde maoistak sortu zuen “ETA berri” erakundetik bereizteko.

Hasierako zalantzak berehala uxatu ziren, ETAk oso argi utzi baitzituen hainbat kontu. ETA prest zegoen bide hori nazionalismoaren sektore garrantzitsu batekin batera egiteko, baina ez EAJko zuzendaritzaren eta erakunde armatuaren arteko desadostasunak gainditzen ari zirelako, baizik eta gehiengo isil handi batentzat –“ahotsa berreskura dezakeen gehiengo mutu” batentzat– sentimendu abertzaleak zirelako akuilu nagusia, alderdien kontsignen gainetik. Eta, hor, ETAk bazuen zerikusia eta zeresana.

Deitzaileak erakunde armatutik kanpoko pertsonak izateak eta nazionalismoaren sektore batzuek ekimena begi onez ikusteak beldurra sortu zuen EAJren zuzendaritzako sektoreetan, beren espazio politikoa arriskuan ikusi zutelako. Eta, berriz ere, EAJk uko egin zion batasun proposamenari, ETAREN kontra betiko hitzak erabiliz eta, oraingoan, ekarpen berri batekin: “kanpainaren helburua guri militanteak lapurtzea da”.

Bere xumetasunean, ETAk “Batasuna” kanpainarako egin zuen diseinua oso erakargarria zen abertzale gehienentzat. Hala ere, beste indar politiko batzuek ez bezala, ETAk ez zuen alderdi egitura bat sortu nahi. Eremu abertzaleko proiektuak oraindik dibergenteak zirela jakinda, haren helburua norbanakoak batzea zen, eta, hain zuzen ere, horrexek eragin zien beste indar politiko batzuei militanteak galtzeko beldurra.

Horri dagokionez, ETA ezin argiago mintzatu zen euskal eskuinaren erasorik gogorrenetako bat ekarri zion gai baten inguruan: “Gu harro gaude euskaldunak izateaz eta harro gaude sozialistak izateaz. Gure ustez, lehenago ere esan dugun bezala, euskal herritarra Euskadi libre eta sozialista batean soilik izango da benetan aske (...). Guk ez diogu gure sozialismoa inposatzen ezein abertzaleri. ETA erakunde abertzale eta sozialista da. ETA Batasun Egunaren alde dago, euskal batasunaren alde, nazio askapenaren alde eta Euskadi sozialistaren alde. Abertzale sentitzen den orok beti izan du lekua ETAn. ETAn

beti egon dira, eta orain ere badaude, sozialistak ez diren abertzaleak. Gaur-gaurkoz erakunderik aktiboena eta eraginkorrena dela uste dutelako daude ETAn. Haietako inor ez dugu kanporatu sozialista ez izateagatik. ETAren historian, kanporaketak arrazoi bakar batengatik egin dira: espainolismoagatik”.

### **EDO ZAPALDUAREN POLITIKA EGITEN DA, EDO ZAPALTZAILEARENA EGITEN DA**

Bere estrategia aurrera eraman ahal izateko, ETAk ezinbestekotzat jotzen zuen euskal herritarrek haren berri jakitea. Helburu horrekin, *Zutik* aldizkariaren 48. zenbakiaren 20.000 ale banatu zituen, inoizko kopururik handiena erakundearen historian, aldizkaria klandestinitaterik zorrotzenean egin, inprimatu eta banatu behar zen arren. Makinaz idazten zen (Poliziak beti konfiskatzen zituen atxilotutako militanteen idazmakinak), eta gero multikopistan inprimatu. Hilabete haietan –aurreko garaietan bezalaxe–, errepresioa Madrildik inposatutako ereduarekiko desadostasuna agertzen zuten euskal gizarteko sektore guztietara iristen zen. Adibide bat jartzearren, 1968ko otsailaren 28an ikastolei buruzko artikulua argitaratu zen Bilboko *Hoja del Lunes* egunkarian, euskal eskoletan “doktrina separatista” irakasten zela esanez. Handik gutxira, Markinan sortu berria zen ikastola itxi zuten, Bizkaiko gobernadore zibilaren aginduz.

1968ko lehen bi hilabeteetan hainbat epaiketa egin ziren aurreko urteko Maiatzaren Leheneko protestetan atxilotuak izan ziren euskal manifestarrien kontra. “Agintaritzaren kontrako irainak” leporatuta, epaileek bi urteko espetxe zigorra ezarri zieten haietako batzuei. Martxoan, berriz, errepresio metodoak zorrotz egin ziren. Isunak ordaintzearen ordeztu espetxera joatea nahiago zutenen ondasunak bahitzeari ekin zion Poliziak, isunak ez ordaintzea erresistentzia ekintza bihurtu baitzen. Adibide gisa, ordaintzeari uko egin zioten Bermeoko 40 gazte espetxeratuak izan ziren.

Finantza entitateetan konfiskazioak egiteko ekintza ildoan abian jarri ondoren, beste urrats berritzaile bat egin zuen ETAk: Bilboko *El Correo Español* egunkariaren kontrako kanpaina. Izan ere, Erregimenaren prentsa bereziki beligerantea zen ETArekin zerikusia zuen guztian eta, zehazki, *El Correo Español*-en jabea (Ibarra familia) frankisten aldean borrokatu zuen Gerra Zibilean. Hori guztia aintzat hartuz, EAJ eta EGI kanpainari atxiki zitzaizkion.

1968ko martxoaren 13an, lehegailu batek eztanda egin zuen *El Correo Es-*

*pañol* egunkariaren Bilboko instalazioetan, errotatiban eta garajeen kalte handiak eraginez. ETAk adierazi zuenez, V. Biltzarrean parte hartu zuten ETako buruzagi batzuen atxiloteten inguruko intoxikazioei erantzuteko jarri zuten lehergailua. Zehazki, egunkariak esan zuten atxilotutakoak “lapur banda” batekoak zirela.

Horrez gain, egunkariak azken asteetan argitaratu zituen asmakeria guztiak aipatu zituen ETAk bere agirian: “Oinezko batek kolpe-leungailutik heldu zion Aretxabaletako lapurren autoari, ihes egin ez zezaten”, “ETaren zuzendaritza Txina Komunistaren Aljerko enbaxadan terrorismoa ikasi zuen nazi baten eskuetan dago”, “Sabino Arana Bilbao atxilotua begirunez galdekatu dute, gaixotia delako”... Azken albiste horri dagokionez, Sabin Arana ETako kidea hain egoera fisiko tamalgarrian geratu zen pairatutako tortura latzen ondorioz, ezen, espexera iritsi zenean, haren kideek ez baitzuten ezagutu ere egin.

Martxoaren bukaeran, ETak *El Correo Español*-en kontrako boikota gogortu zuen. Beste ekintza batzuen artean, egunkariaren banaketa furgoneta bat lehertu zuen. Berehalaxe, Antonio Barrena zuzendariak Poliziaren babes eskatu zuen. Eta gauza bera egin zuen Ibarra familiak (egunkariaren jabea). Orduz geroztik, Polizia Armatuak gau eta egun babestu zituen familiak Negurin zeuzkan etxeak.

Zenbait egun geroago, lehergailu batek eztanda egin zuen Urbasan, Espainiako Txirrindulari Itzuliko XV. etapa egiten ari ziren txirrindulariak ez-tandaren lekura iritsi baino apur bat lehenago. Guardia Zibilak bidea itxi zuen Iruñera doan errepedeko 57. kilometroan. Apur bat beherago, errepedea moztuta zegoen, ez-tandaren eraginez. Etapa bertan behera utzi behar izan zen. Euskal herritar gehienentzat, lehergailua jartzeko arrazoiak agerikoak ziren: Euskal Herriko ibilbidean, *El Correo Español* zen Espainiako Itzuliaren antolatzailea eta babesle ofiziala.

Hala ere, Euskal Herriko egoera gertutik ezagutzen zuten gehienentzat us-tekabe galanta izan zen jakitea lehergailua Euzko Gaztediko kide batzuek jarri zutela. ETAk tatzetak bota zituen Espainiako Itzuliak zeharkatu behar zituen Euskal Herriko leku ugarian, baina bera ez zen izan atentatuaren egilea, prentsak hala esan zuen arren. Biharamunean, EGik bere gain hartu zuen ekintza: “Espainiako Itzuliaren antolatzaile izateagatik Euzko Alderdi Jeltzaleak *El Correo Español-El Pueblo Vasco* egunkariaren kontra agindu duen boikotaren epilogo gisa, EGiko komando batek indar handiko dinamita karga bat zartarazi du Urbasan, zubi baten azpian, Iruñetik 65 bat kilometrora”.

ETAk sakonki aztertu zuen ekintza hura, eta piztu zituen itxaropenen inguruan egin zuen hausnarketa ezin egokiagoa izan zen: “EAJ burgesiak kontrolatutako mugimendua da, eta burgesiari ez zaizkio aldaketak interesatzen, saria edozein dela ere. Ekintza ikusgarriak egitera bultzatu ahal dute EGI, baina ezin izango diote luzaroan eutsi jokabide horri. Etapa laburra izango da”. Eta halaxe gertatu zen. Handik gutxira, 1969ko Aberri Egunean, EGiko bi kideri eskuetan zartatu zitzairen prestatzen ari ziren lehergailua. Bi heriotza haiek EGiren jarduera armatuaren bukaera ekarri zuten.

ETAk hainbat agiri plazaratu zituen *El Correo Español*-en kontrako kanpainaren barruan egindako atentatuak bere gain hartzeko. Txabi Etxebarrietak ekintzen zergatiak azaldu zituen berak eskuz idatzitako eta erakundeak sinatutako dokumentu batean: “Barrena jaunak gezurra besterik ez du esaten bere egunkarian, sinadurarik gabe beti, ETari buruz idazten dituen kroniketan, eta, gainera, aurkariak erantzuteko aukerarik ez daukala jakiteak ematen dion abantaila zikinaz baliatzen da. Erantzuteko era bakarra lehergailu bat jartzea zen, eta horixe egin dugu”.

Gerora, Txabik eman nahi izan zionaz besteko esanahia hartuko zuen dokumentu horrek, baina ez koiunturaren ezaugarriengatik edo Txabik berak torturen inguruan egiten zuen irakurketarengatik, ezpada honakoa gehitu zuelako Poliziak sistemaren eta Espainiako Estatuaren defentsan jokatzeko paperaz aritzean: “Inorentzat ez da sekretu bat nekez irtengo garelara 1968tik hildakorik gabe”.

Aberri Eguna baino apur bat lehenago plazaratutako agiri premonitorio horretan, Txabik ohartarazten zuen borroka oso gogorra izango zela. Pasarte luzea da, baina merezi du hona aldatzea: “Argi eduki behar dugu zein diren gure borondate iraultzailearen alde txarrak. Jardunean jarraitzen badugu, erorketak egongo dira eta Erakundeko militante asko espetxera joango dira, Poliziak baliabide izugarriak dituelako gure kontra borrokatzeko. Ezin da erorketa arriskurik gabe jardun. Erorketarik ez duten erakundeak jarduten ez duten erakundeak dira edo, beste era batera esanda, existitzen ez diren erakundeak, erakunde bakoitza berak egiten duena baita. Ezer egiten ez bada, ez dago erorketarik, baina ez da aurrera egiten. Kontrara, iruzur egiten zaio herriaren konfiantzari. Horregatik, ETako militante izan nahi duen edonori seriooki ohartarazten zaio eror daitekeela, argi eta garbi ikusten baita borrokaren baldintzak gero eta zailagoak izango direla. Arriskurik gabeko lan metodo iraultzaileak aurkitu nahi izatea infantilismo politikoa da. Klandestinitatearen eta diziplinaren bidez arrisku horiek gutxitzen saiatu behar gara, jakina, baina kategorikoki esaten dugu ezen, gaur, orain eta hemen, Euskal Herria askatzeko zerbait egin nahi duenak arriskatzea beste



aukerarik ez daukala. Ezer arriskatu nahi ez duenak ez du ezer egin nahi bere herriaren alde eta, beraz, zapaltzailearen alde egiten du. Inor ez dago politikatik at: edo zapalduaren politika egiten da, edo zapaltzailearena egiten da, pasiboki bada ere”.

## **JAUZI HANDIA**

Sortu eta ia hamar urte geroago, ETA jauzi handi bat egitear zegoen, V. Biltzarrean onartutako aldaketa ideologiko eta taktikoek indarrrik gabe utzi baitzituzten IV. Biltzarrean finkatutako ildoak. Gainera, denborak erakutsiko zuen bezala, oraingoan metamorfosia praxian ere gertatu zen, eta ez soilik ideien eremuan.

Praxiaren eta ideien artean desoreka nabaria zegoenez, erakunde armatuak erabaki zuen ahal beste zehaztu behar zituela erabaki handietatik at geratzen ziren makina bat zeregin eta jarduera. Hastear zegoen fase berriaren nondik norakoak azaldu behar zizkion euskal gizarteari edo, behinik behin, ETAtik gertuen zegoen sektoreari. Bere esku-hartze politikoan bortxa erabiltzea baztertzen ez zuen nazio askapenerako mugimendu gisa jarduteak bi gauza eskatzen zituen. Lehenik, erakundearen egitura egokitu behar zen, errepresioak jo orduko suntsi ez zedin. Bigarrenik, militante sare handi bat eratu behar zen, iraupen luzeko borroka armatua aurrera eramanez ahal izateko.

Jose Antonio Etxebarrieta arduratu zen erakundearen epe laburreko zereginak gidatuko zituzten printzipio teorikoak formulatzeaz. Etxebarrietak egindako hausnarketaren ondorioak *Zutik* aldizkariaren 48. zenbakian jaso zituen. 1968ko urtarrilean argitaratu zen, aurreko hilabeteetan edukien inguruko barne eztabaida sakona egin ondoren. Aldizkariaren izenburua oso esanguratsua zen: “Zer egiten ari gara? Zergatik egiten ari gara hori? Zer egin behar dugu? Zergatik egin behar dugu hori?”.

Sarrera gisa, ETAk azpimarratzen zuen eraginkortasun politikoa “batasun ideologikoaren” emaitza izango zela eta, hori lortzeko, albo batera utzi behar zirela estatu mailako nahiz Euskal Herriko korrante sozial askoren ezaugarri ziren eskematismoak. Erakunde armatuaren iritzi, militantearen zeregin nagusia ez zen norberaren alderdia edo erakundea sostengatzea, ezpada herriaren eta erakundearen arteko zubi lana egitea. “Erakundea herritik aldendu eta bakarturik gelditzen bada, haztamuka dabilen itsuaren antzekoa izango da; eta herriak ez badu lortzen borroka orientatu eta antolatuko duen erakunde bat edukitzea, protesta isolatuak egin ahal izango

ditu, baina ezin izango du iraultza egin ondo trebatuta eta antolatuta dagoen etsai baten aurka”.

“Gu –esaten zuen ETAk txosten horretan– herriaren nukleo kontzientziatu bat besterik ez gara, herritik eta herrian sortutako nukleo bat. Gure zeregina bat eta bakarra da: herriari bere beharren kontzientzia ematea, bere etsaiak nor diren ikusaraztea, herriak berak bere iraultza egin dezan. Kontua ez da, inondik inora, herriak gutxi batzuek erabakitzen dutena egitea (gutxi horiek konpromiso eta gaitasun handikoak izanik ere), baizik eta herriak berak egitea euskal iraultza sozialista, bere benetako beharrak zein diren eta nola konpondu ahal dituen ulerturik. Gure zeregina oso argia da: herria heztea, errealitatea bere begiekin aztertzen irakastea –oligarkia kapitalistak bere propagandarekin eta eroskeriekin engaina ez dezan–, eta irteerarik gabeko bidez ohartaraztea, hortik jo ez dezan”.

ETAk erakundearen garapenerako ezinbestekotzat jotzen zuen herri babes hori gauzatze aldera, zuzendaritzak jarraibide zehatzak helarazi zizkien militante guztiei. Azpiegitura egokia sortu behar zen epe motzera begira aurrekusiak zituen ekintzak aurrera eraman ahal izateko. “Erakundeak mota askotako beharrak ditu. Askotariko beharrak, ez soilik ekonomikoak. Militanteek lotarako etxeak behar dituzte, eta bilerak egiteko lekuak, laguntza ekonomikoa emango duten abertzaleak, ibilgailuak eta bestelako gauzak eskuratzeko informazioa emango duten abertzaleak, ezagupen tekniko espezializatuak dituzten abertzaleak (erlojugileak, sarrailagileak, kontrabandistak, mekanikariak, meatzariak...)”.

Horrela, militante eredu berriaren oinarriak jarri zituen ETAk. Horixe izan zen V. Biltzarraren ondoren egin zuen jauzi kualitatiboa. Ordura arte ez bezala, handik aurrera ETAko militanteen jardura ezin zen banakakoa eta boluntarismo hutsezkoa izan. Militantzia ulertzeko era globalago baten emaitza izan behar zen. Diziplinan eta planifikazio politikoan oinarrituta, eta Jose Antonio Etxebarrietak “teknika propioa” zeritzonaren bidez, askapen prozesuari lagunduko zioten egoerak sortu behar ziren.

“Autosufizientzia” horrek esan nahi zuen Euskal Herria hartu behar zela iraultza sozialista egiteko marko bakartzat. ETAk berak esan zuen bezala, “gure erantzukizuna areagotzen du eta, aldi berean, ilusio faltsuak uxatzen dizkigu. Dagoeneko ez gaude inoren zain, oso jatorrak garelako zeruko goiangeruak edo nazioarteko lagunak babak eltzetik ateratzera noiz etorriko zaizkigun zain. Gerrickoa estutu behar dugu, eta errealitateari aurrez aurre begiratu, itxaropen hutsalik gabe eta besteek egingo dutena pairatu beharrik gabe”.

Ordurako, herriak sumatzen zuen Erregimenak gutxi iraungo zuela, urte batzuk gehienez ere. ETAk, ordea, zuhurtasun handia erakutsi zuen eta, neurri batean behintzat, uste orokor horren kontra agertu zen, bi arrazoi-rengatik: batetik, borroka luzea zetorrela aurreikusten zuelako; eta, bestetik, zuzendaritzako zenbait kidek bazekitelako erakundeak jauzi handi bat egingo zuela laster.

“Gu oso posizio berezian gaude –esaten zuen Etxebarrietak–. Areriaz inguratuta gaude eta ez dago guri laguntzeko interesa daukan indar politikorik. Batzuek uste dute ezkerreko mugimendu batzuen laguntza jaso dezakegula, baina ez dute ahaztu behar indar horien interesik behinena euren lagunak Madrilen eta Parisen kokatzea dela eta, asko jota, babes morala soilik emango liguketela. Gu Europako kurduak gara, baina industria eta Banka kapitalistaren zama daukagu eta Kurdistango mendien babes paregabea falta zaigu”.

Bere historia osoan zehar, erakunde armatuak bizirik iraun du errepresio gogorraren eta buruzagi nahiz militante kualifikatuen atxiloketa etengabeen gainera, konfrontazioa luzea izango zela aurreikusi zuelako eta, horrekin batera, euskal herria hartu zuelako aldaketen eta borrokaren subjektutzat. Horri dagokionez, hau adierazi zuen ETAk: “Herritik buruzagi militarrek sortzen dira (gogora ditzagun Beldarrain eta hura bezalako beste asko, 1936an; gogora dezagun Giap vietnamdarra, Dien Bien Fuko garailea; gogora dezagun Begin israeldarra), buruzagi politikoak sortzen dira (Fanon, zeina medikua baitzen; Lumumba, maisua; Dolores Ibarruri, meatzari baten emaztea; Ben Gurion, nekazaria; Khider, tranbia gidaria eta Madrilen eraila...), buruzagi ekonomikoak sortzen dira (Che Guevara medikua zen eta Kubako Banku Nazionala zuzendu zuen). Sistema dominanteak sekula ez zien gora egiten utziko, baina borrokaren dinamikak beren gaitasunak eta adimena garatzeko bidea ireki zien”.

## **PUNTU ETA BEREIZ**

1968an, Txabi Etxebarrietaren desagerpen fisikoak puntu eta bereiz jarri zuen erakundearen definizioan eta praxian, lehenagotik zetorren gatazka baten hari eroalea zen aldetik. ETarentzat –*Zutik* aldizkariaren 50. zenbakian adierazi zuen bezala–, Txomin Letamendi jeltzalea hildako azken erresistentea izan zen (1950ean hil zen, komisarian pairatutako torturen ondorioz), eta Txabi, berriz, “eraildako lehen iraultzailea”. Bi belaunaldiren arteko zubi tragiko eta samingarria.

Txabiren eta ETaren iragarpenen arabera, 1968 jauzi handiaren urtea izango zen, eta, hain zuzen ere, urtea hasi bezain laster Espainiako Poliziaren Bilboko inspektore buruak oso adierazpen esanguratsuak egin zituen, ETaren kontrako gerra beroa hasia zela esanez. Handik gutxira, Madrilgo prentsak iragarpena berretsi zuen: “errepresio bidezkoarekin erantzun behar zaio biolentzia orori”, “erailketa demokraziak eskusibitatean eduki nahi dituen mekanismoen eskalan sartzen bada, diktadurarik irmoenaren aldekoak gara”.

Errepresioak muga guztiak gainditu zituen eta tortura era sistematikoan aplikatzen zitzairen atxilotu guztiei. Sabin Arana ohatilan irten zen komisariatik, eskuetako hainbat azazkal falta zitzaizkiola. Xabier Bareñori tinpano bat hautsi zioten. Eta Gasteizen atxilotuak izan zirenetako batek begi bateko ikusmena galduko zuen geroxeago, komisarian jasandako torturen ondorioz.

Bere aldetik, Jose Maria Junquera Bilboko poliziaburuak oso adierazpen zalapartatsuak egin zituen prentsaurreko batean: “hasi da ETaren kontrako gerra beroa (...). ETaren kuartel nagusia Frantzia hegoaldean dago (...). Urtebete eta erdiz Aljerren terrorismo ikastaroak hartu dituen ofizial alemaniar ohi batek zuzentzen du ETA”. Urte horretako abuztuan, ETako komando batek Manzanas hil zuen. Beste komando bat Junquera hiltzen saiatu zen, baina ez zuen lortu, komisarioa kanpoan zelako.

Komisariatik pasatzen ziren guztiek tortura latzak pairatzen zituzten. Hain zen agerikoa errealtate hori, ezen, martxoaren bukaeran, Lazkaoko beneditarren abadeak eta Espainiako Estatutik kanpoko elizbarruti banatan jarduten zuten euskal gotzain bik torturaren kontrako gutun bat bidali baitzieten Gipuzkoako gobernadore zibilarri eta militarri eta Guardia Zibilarren Donostiako 551. Komandantziako teniente koronelari. Gutuna helarazteko, bitartekari gisa erabili zuten Miguel Castells notario donostiarra (geroago hain ezaguna izango zen abokatuaren aita).

Horren ondorioz, Lazkaoko abadeak jazarpen etengabea jasan zuen Espainiako Poliziaren aldetik, bera baitzen Espainiako Estatuan bizi zen bakarra. Hiru elizgizonen gutunak Vatikanoko II. Kontzilioak eta Pio XII.a aita santuak tortura gaitzesiz esandakoak gogorarazten zituen, eta honela bukatzen zen: “eror dadila, beraz, gure anatema praktika horien gainera, eta bertan behera utz ditzatela behingoz haien egileek, Jainkoaren izenean, zeina iraindu egiten baitute, eta Elizaren izenean, zeinak arbuiatu egiten baititu”.

Poliziaren hedapena izugarri handia izanik, hiru tiroketa gertatu ziren egun haietan, bat Eibarren eta bi Bilbon (Kale Nagusian eta Labayru kalean). Tiroketetan parte hartu zuten ETako kide guztiek ihes egitea lortu zuten. Bil-

boko Kale Nagusikoari dagokionez, Poliziaren presentzia oso handia izan zen tiroketaren osteko orduetan, baina Agirrezabal jesuitaren atxiloketa izan zen operazioaren emaitza bakarra. Junquerak berak ihes egiteko gonbita egin zion, Ihesei buruzko Legea aplikatzeko asmoz. Horrela, komisarioak esan zionez, “euskal kleroaren lehen martiria” izango zen.

Segada haietan, Txabi Etxebarrieta zen Poliziaren helburu nagusia, torturen bidez jakin baitzuen pisu handia zeukala ETAn. Egun batzuk lehenago, azaroaren 7an, Txabik Derioko garaje batetik ihes egitea lortu zuen, tiro jasa handi baten erdian. Iheslaria harrapatzeko asmoz, Bilboko Poliziak Ipar Euskal Herriarekiko mugak ixteko eta zaintza zerbitzu berezia jartzeko agindu zehatzak igorri zituen Iruñera.

Gauean, Kristiane Etxaluz atxilotu zuten kontrol batean. Zugarramurdiko etxabe batean giltzapetu zuten, akusazio zehatzik gabe. Guardia Zibilak inguru guztia hartu zuen, gau horretan Txabi Etxebarrietak muga zeharkatuko zuelakoan. Goizaldean, Zugarramurdiko 17 urteko gazte bat (Miguel Iturbe Elizalde) herriaren goiko aldeko larreetan zebilen. Muga zaintzen ari ziren guardia zibilak tiroka hasi zitzaizkion eta bertan hil zuten. “Akatsaz” konturatu zirenean, eskuan pistola bat jarri eta enfrentamendu batean hil zela esan zuten. Hala ere, bertsio hori sinesgaitza zen, inguru haietako biztanle guztiek hildakoa ezagutzen baitzuten. Horregatik, enfrentamendua tesia alboratuta, Gobernu Zibilak bigarren ohar bat atera zuen, gaztea “kontrabandoan” ari zela eta “ihes egiten saiatu zenean” hil zela esanez.

1968ko apirilaren 14an, euskal indar guztiek Donostian ospatu zuten Aberri Eguna, era bateratuan. EAJk egin zuen deialdia, gainerako alderdiekin inolako kontsultarik egin gabe, baina, hala ere, aurreko urtean Iruñean gertatutakoa errepikatu zen: herritarren parte-hartzeak aurreikuspen guztiak gainditu zituen eta errepresioa oso gogorra izan zen (ia hirurehun atxilotu egon ziren).

Maiatzaren Lehena ere errepresioaren lekuko izan zen. Errepresio indarrak oso bortizki oldartzen ziren Euskal Herrian egiten ziren ekitaldi eta kontzentrazio guztien kontra. Gerra beroa hasia zen –Bilboko poliziaburuak adierazi zuen bezala–, eta ezerk ez zuen adierazten hoztuko zenik. Maiatzaren Lehenaren bezperan, Poliziak 120 lagun atxilotu zituen Bilbon.

## LEGATUA

1968ko ekainaren 2an, hil baino bost egun lehenago, Txabik Biltzar Ttipiaren azken bileran parte hartu zuen, Ondarroan. Berarekin batera, Mariasun Goenaga, Jose Mari Eskubi, Unai Dorronsoro, Xabier Larena, Jokin Gorostidi eta Eduardo Uriarte egon ziren bilera hartan. Txabi hildakoan, Xabier Izkok ordezkatu zuen.

Txabi Etxebarrieta 1968ko ekainaren 7an hil zen. Hileta euskal herritarren elkartasunaren eta mobilizazioaren erakustaldi erraldoia izan zen. Milaka lagun bildu ziren Bilboko San Anton elizan, Txabiren argazki baten azpian. Klaudio Gallastegi parrokoak gidatu zituen hileta elizkizunak. Bukatutakoan, Guardia Zibilak ohiko bortizkeriaz jo zuen elizatik irteten ari zirenen kontra, *Gu gera Euskadiko* abestia kantatzen zuten bitartean. Istiluak oso gorrak izan ziren eta Guardia Zibilak 30 lagun atxilotu zituen, haien artean lau apaiz eta bi seminarista.

Donostian, Txabiren aldeko hileta elizkizunak jesuiten elizan egin ziren. Sermoian, honela mintzatu zen aita Patxi Altuna: “indarkeria gaitzesgarria da berez, baina ez bere printzipio eta obretan giza eskubideen kontra jotzen duen tirania despotiko eta luze baten kasuan”. Hileta bukatutakoan, manifestazio handi bat osatu zen. Manifestariek *La Voz de España* egunkariaren aleak erre eta TVEko kamioi bat irauli zuten. Polizia behin eta berriz oldartu zen manifestarien aurka eta hainbat lagun atxilotu zituen.

Txabi hil eta hiru hilabete geroago, ETAk bere historiako lehen elkarrizketa eman zion *Enbata* astekariari. Bere ibilbidearen errebaso laburra eginez, honela azaldu zuen erakunde armatuaren sorrera: “*Euskal Gobernu (erbestean) onartzen ez duen eta gobernu horrek ezagutzen ez duen indar berria da*”. Euskal Herrian kokaturiko kapitalistak automatikoki Euskal Herriaren etsaiak ote ziren galdetuta, erakundearen erantzuna V. Biltzarrak militantzia abertzalearengan eragin zuen eraldaketa ideologikoaren adierazle argia izan zen.

Hauxe izan zen erantzuna: “*ETAk ez du euskal izaera jaiotze edo deitura irizpideen arabera definitzen. Euskaldun izateak euskaraz bizitzea esan nahi du, hau da, euskal herria eta euskal kultura defendatzea. Praktika kontua da gehien bat. Hori gogoan harturik, Euskal Herrian badira euskal jatorriko kapitalistak, euskaraz hitz egiten dutenak eta 36an, Euskal Herria suntsitzeko gerrari ekin ziotenen alde jarri zirenak. Egun Estatu espainolean gidaritzan postuak dituzten eta Hego Euzkadin genozidioa burutzen ari diren berberak dira. Gainera, beren interes ekonomikoek bultzaturik, 300.000 atzerritar ekarri dituzte Euskal Herrira lanerako esku merkea izateko eta horrela mozkin handiagoak lortzeko beren lantegietan*”.

*Enbata*-ko elkarrizketan, V. Biltzarrean izandako eztabaida bizien ondorioak ere azaldu zituen ETAk. Txabi Etxebarrietaren legatua zen. 50 urte geroago, lurraldetasunaren inguruan egiten zuen irakurketak ez du gaurkotasunik galdu: “*ETAk ez ditu Hego Euzkadiko borroka baldintzak Ipar Euzkadirira tokialdatu nahi. Ipar Euzkadin laborari eta pobrea da gure herria eta etsaia, demokrazia burgesa da. Beraz borroka baldintzak ezin daitezke Hego Euzkadi-koen antzekoak izan. Baina, aldi berean, borroka baldintzak oso ezberdinak dira baitaere Eibarren esaterako, industrializatua eta euskalduna, eta Tudelan, nekazal herria eta euskaraz ez dakiena*”.

Hizkuntza, burujabetza osoa, sozialismoa... eta lurraldea. Horixe da Etxebarrieta anaien eta belaunaldiz belaunaldi Euskal Herri libre batean sinestutuen eta horren alde borrokatu diren ehuna gizon-emakumeren legatua. Beraiek ekarri gaituzte honaino.

**Iñaki Egaña**

